

uk

103. zenbakia / 2006 uztailak 2



Esker iz. Mesede edo on egin bat hartu duenaren ezagutzazko sentimena. Esker meza: zerbaitegatik eskerak ematen den meza. // **Eskerrak eman** (norbaiti). ik. eskertu. □ Eskerrak bihurtu: eskerrak eman. // **Eskerrik asko, mila esker.** Eskerrak emateko erabiltzen den esaldi. □ Esker mila. naker anitz: eskerrik asko. // **-(r)i esker, -(r)i eskerrak.** *-(r)en* bitartekotasun, laguntza, eraginagatik.

Getxotarrek oso ondo baloratu dute Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua.*

Lanean jarraituko dugu berdin pentsatzen segi dezazun.



* Iurria: Getxoko Udalak 2005ean egindako azterketen emaitza.

UK galeria > Juan Gomez



Erandio darama bihotzean Juan Gomez (Erandio, 1965) argazkilaria handiak eta ez du bere erandiotartasuna adierazteko aukerarik galtzen. *Erandio, oroimenerako irudiak* herriko argazki zaharrekin liburu ederra osatu zuen. Orain herriari buruzko beste bat prestatzen dabil, baina oraingoan gaur eguneko argazkiekin. Aldizkari honetako azalean, hain zuzen ere, liburu horretan agertuko den argazkietako bat ipini dugu.

Betidanik izan da argazkilaria Juan. Gazte-gaztea zela fotografia ikasketak egin zituen Algortako Taller de Imagen eskolan. Ondoren, hogeitagutxi urte zeuzkala, Bilboko Erakusketa Azokako argazkilaria izaten hasi zen. Argazki publizitarioan aditua da eta makina bat agentziarako egin izan du lan. Bere bigarren lan esparrua argazkigintza turistikoa da, eta esaterako, Getxo, Gernika edota Bizkaiko Kosta ezagutzera ematen duten argazkiak berak egiten ditu.



Itsasadarra Erandion

«Telebista piztuta dagoen tokian badago irakurtzen ari ez den norbait» Woddy Allen

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Jaien zama. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. x. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxoko Piñaga kalea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Xabi Pastor.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Balkoitik balkoira, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. NBEko eskultura, Jon Bernardes.
30. BERBETAN. Mikel Gallaga, Jokin Aspuru.
34. FOTOGRAFIA. Ereagako lanak, 1965.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Gaurik laburrena.
43. MUSIKA. Basaki taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Joseba Zulaikaren azkena. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Imanol Loizaga korrikolaria.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Jose Maria Lopez Arostegi.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adlibidez, Erromoko Kandilejas tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Ondarreta atletismo taldea, 1958.
54. AITORMENAK. Estepan Aldamiz-Etxebarria.




30 Mikel Gallaga



11 Xabi Pintor

Berbetan

Mikel Gallaga algortarra eta Pedro Arguelles kubatarra hilaren 22an ezkonduko dira Getxon. Eurekin egon gara Madrilan.




26 J. M. Lopez Arostegi



38 Ereagako lanak



16 Joxe Belmonte



54 Estepan Aldamiz-Etxebarria

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osonk edo zaliz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Itxasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>Aldizkari honek Getxoko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>
<p>Getxo UBALKA</p>	

	<p>Aldizkari honek Leioako Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Aldizkari honek Berangoko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>		

	<p>Aldizkari honek Erandioko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Aldizkari honek Sopelako Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>		

	<p>Aldizkari honek Gorlizko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Aldizkari honek Sopelako Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>		

	<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jasotzen du</p>
<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren Dirulaguntza</p>	

	<p>Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jasotzen du</p>
<p>EROSKI FUNDAZIOA</p>	

	<p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>
---	---

gugeu

Ale honetan

Udan buru-belarri sartuta gaude eta beharrak gehiago kantsatzen ei du. Igarri egiten da, baina hala ere, jaietako deabru batzuei ezetz esan diegu -egia esan sanjuanak baino ordu gutxi batzuk arinago amaitu genuen zembakia- eta lanari gogor ekin diogu. Horrela, denetarik dakargu ikasturteko azken aurreko zembaki honetan: amodio askea, kultura, bertsolaritza, Barrikako publizitate enpresa berria, Ereagako hondartzaren birjinitatearen galera, euskararen normalizazioa Leioan, dantza garaikidea, etab. Aipagarria da *berbetan* saileko protagonista, oraingoan ez hain ezaguna -batzuek ezagutu egiten dugu-, baina hamaika istorio eta bizipen kontatzeko dauka Mikel Gallagak. Gaztetan Algortara etorritakoa da Mikel eta herriko errebeldea izan zen, zentzu guztietan gainera. Orain Madrilen bizi da, baina bere herrira bueltako da bere nobio kubatar santeroarekin ezkontzera, herriko historiara pasako den sexu bereko lehen ezkontza ospatzen.


Horrez gain, eskualdeko jaien berri ere eman dizuegu, hortxe dauzkagu-eta Karmengo jaiak. Larrabasterra eta Armintzan ospatzen dira batez ere, eta ekitaldi diferenteak eskainiko dituzte, barbarako, Armintzan orain 3 urte berreskuratu zuten Txapel Reggae jaialdia.

Bestalde, aipamen berezia ere merezi dute gurean ikasturte baterako etorritako erasmus ikasleek geure gainean dauzkaten iritziek, kanpoko begiek zelan ikusten gaituzten jakitea interesgarria, aberasgarria, baina batez ere beharrezkoa da-eta.

Beste barik, izan untsa. 4

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua




Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

Artea, morala, autoritatea

Luis Pérez izeneko morroi ezegagun batek Iruñeako alde zaharretik Jainkoak mundura ekarritako moduan paseatzeko erabaki osasuntsua hartu zuen behin, hau da, pelotatan, popa (eta zakil) bistan. Izen ezin arruntagoa zuen gizon xehe eta xume honek nahi zuenarentzat ikusgai utzi zituen bere gorputzaren atal guzti-guztiak. Nahi ez zuenak bestaldera begiratu baino ez zuen egin behar "bere pudorean" minik ez hartzeko. Bada, 180 euroko isuna ezarri zioten gorputzaren edertasunaren aldeko aldarrikatzaile porrokatu honi. Aldi berean izen sofistikatuagoko Spencer Tunick argazkilaria sonatuak 1200 boluntario bildu zituen apirilaren bere izena bezain sofistikatu den Donostia hirian zertarako eta den-denak biluztu eta bere argazki-kameraz inmortalizatzeko. Azterketa psikoteknikoetako arazo logikoen antzera, zera galdetzen dizuet: pasadizo honetan zerk ez du enkajutzen? 4



LEIOA, 2006KO EKAINAREN 22A

Jaien zama / Leioako San Juan gauaren bezperako argazkian jaien zama antzeman du UK-koon begiradak. Jaien ezaugarri da gozamena, gehienok festetan primeran pasatzen dugu, baina sarrigi askok goza dezaten gutxi batzuek dihardute gurdi pisutsuari tiraka; hamaika ekitaldiren datak itxi, eskatu beharreko baimenak eta aurkeztu beharreko paper guztiak bete, egitarauaren kartelak inprimatzera eroan, kalean eskegi... Jainko egiptoarraren irudia ez da urrezkoa, baina urrezko domina merezi dute herri askotako Jai Batzordeetako tiralariek! "Denok apur bat emanez, gutxi batzuk dena eman ez dezaten", zioen hark. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa **DOAN** goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, opariak eta deskontuak.
4. Promozioetan abantailak



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar da

[lehen]



JOAQUIN LAPA

[orain]



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / GETXOKO PIÑAGA 1977-2006

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > arimaren gimnasia



Emakumezkoen taldea taichia egiten Arrigunaga inguruan

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Zer ari dira andre horiek eguzkiari keinuka? Aerobica izan liteke, mantso-mantso mugituta? Animadorak izan litezke urteren batzuk kenduta... Ez ba, taichian dabilta gogoz, arazo denak ahaztuta.

Duela ia 800 urte lekuko izan zen Asia, Shan Feng delako txinatar batek asmatu zuen taichia, stresarentzat erremedio tradizional bitxia, gorputz-atalen hausnarketa ta arimaren gimnasia.

Taichi-saiotik atera arren nerbio denak menpean, stressa berriz aurkitzen dute euren etxeko atean. Lekutan uzten dute taichia umeen buila entzutean... "Imanol zoaz zure gelara ta itxi Jone bakean".

* Doinua: Pello Joxepe



txistea > autobus xelebreak

Ermuan kontatu zidaten, kristoren sustoa hartu zuela batek, autobusa hartzera joan eta irakurri zuenean:

-Autobusak, bihar eta berandu.

Eskerrak, azpian erdaraz jartzen zuena irakurri zuen:

-Autobuses, mañana y tarde.

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

nagusiak > euskara klaseak Getxoko Nagusien Etxean



Astean ordu biz aritzen dira nagusiak euskara ikasten

60 urte baino gehiago duten 27 pertsona dabilta euskara ikasten Getxoko Nagusien Etxean. Guztira, hiru talde osatu dituzte eta maila baxuan, ertainean eta altuan banatuta dauden arren, ez dute euskaltegiko maila erdietsi. Izan ere, Ibar Nagusien Etxea elkarteak martxan jarritako egitasmoak ez du ikasleek jakintza maila altua eskuratzea helburu. Eskolen xedea ikasleek oinarritzko ezagutzak eskuratzea da, euskararik ez dakien jendeak eman du-eta izena. Hartara, maila baxuan daudenei koloreak, asteko egunak, hileak eta abar erakusten dizkiete. Gainerako mailetan, berriz, estructures batzuk ikasi dituzte dagoeneko eta badago euskaraz berba egiten defendatzen den jendea. Hori guztia lortzeko, hiru irakasle dabilta momentu honetan beharrean. Argi geratu da euskara ikasteko grinak ez daukala adinik! m

Iruña-Veleia > III. mendeko euskarazko idazkiak aurkitu ei dituzte



Erromatar garaiko multzo epigrafikoa eta III. mendeko kalbario bat aurkitu dute Iruña-Veleian

Azkenaldian euskal komunikabide gehienek jakinarazi dutenez, III. mendeko euskarazko idazkiak aurkitu ei dituzte Iruña-Veleiako erromatar aztarnategian, egiptiar ieroglifikoakaz eta antzinako aztarna kristauakaz batera. Hala ere, oraindik zehurtiaz jokatu behar dela azpimarratu dute ikerketako arduradunek; izan ere, beharrezkoak diren frogak egin ondoren III. mendekoak direla baieztatuz gero, orain arte ezagutzen diren euskararen aztarna zaharrenak izango lirake. Oraingoz, eskuartearen darabilten hipotesiaren arabera, erromatar garai berantiarrean koka daitezke testuak. Gaur egun ezagutzen diren euskarazko idazki zaharrenak XI. mendekoak dira, Errioxako Donemiliaga Kukulako monastegian aurkitutakoak hain zuzen ere. Beraz, gure historia aldatuko duen aztarnaren aurrean ete gaude? m

saiaz getaria
HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehen garaiak... ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

elkartasuna > odol emaile gutxi dago Getxon



Borondatezko odol-ematea oraindik nahitaezkoa da 50.000 lagun ingururen bizi-baldintzak hobetzeko. Orokorrean, 1.000 bizilaguneko 50 odol-emaile ditu EAEk eta kopururik txikiena Getxon, Bilbon eta Barakaldon dago. Horren garrantzia kontuan hartuz, eta mundu osoan odol-emateari eskainitako eguna ospatzeko, iaz 40 edo 50 emate egin zituzten pertsonak omendu zituen ekainaren 14an Dosanbiz Bizkaiko Odol Emoileen Elkarrekin (argazkian). Guztira, 151 lagun nabarmendu zituzten hartutako konpromisoagatik. Elkarrekinen helburu nagusia, beraz, Bizkaian odol-ematea sustatzea da eta, horretarako, 75 ordezkari ireki ditu 1994az geroztik eta hainbat erakundegaz (BBK, Eroski, Aldundia, etab.) lankidetzan dabil. m

Informazio gehiago: 94 400 71 41 edo 900 303 404

internet > lurraren orbita aldatu gura du web-gune batek



www.worldjumpday.com web-guneak lurraren orbita aldatu gura du datorren uztailaren 20an. Horretarako, ekimenagaz bat egitera deitu ditu 600 milioi pertsona eta aldi berean, hau da, egun horretako 12:39:13an (GTM), salto egitea eskatu du. Pertsona horiek guztiek egindako indarragaz lurraren orbita aldatuko dela uste dute egitasmoaren bultzatzaileek eta planetaren beroketa ekidi. Zientzialariek diotenez ezinezkoa da hori gertatzea, baina argi dagoena da azkenaldi honetan modan jarri den *flashmob* horietako bat dela, edo berdina dena: "bat-bateko jende pilo". Lehenbiziko *flashmob*-a New Yorken antolatu zuten, 2003an, baina ez zuen arrakastarik izan. Helburua, zentzubako ikuskizunak egitea da, ondo pasatzeko besterik ez dutenak balio. m

Salto egiteko deialdia egin dute munduko hainbat lekutan



Entropy enpresa sortu du Xabik entzute handiko bazkide batzuk batera: besteak beste, Alain Goikoetxea, Iker Acero, Javier Sarmiento, Iker Fernandez eta Isma Urzaiz

Xabi Pintor > harremanen garrantzia

Xabi Pintorrek, 33 urteko algortarrak, Lauro ikastolan egin zituen ikasketak. Amaitutakoan berari ere ailegatu zitzaion, denoi bezala, bizitzan zer izan gura zuen erabakitze momentua. "Denak abokatu edo mediku izateko asmoz ikusten nituen, baina nik ez nuen hartarako gogorik", diosku. Hala, Pintorrek oso bestelako bidea hartu zuen. Berak musika, surfa, snowborda... maite zituen, eta harek harreman estua gauzatu ahal izateko, AEBetara jo zuen, Kaliforniara. Ingelesa ikasi eta marketing eta publizitatea ikasteari ekin zion, olatu baten gainean ez zegoen tarteetan. Bitartean, surflari eta skater profesionalak ezagutu zituen, eta azkenean mundu horretan topatu zuen ogibidea. Euskal Herrira itzuli eta gitxira, Volcom surf-jantzi marka ezagunerako hasi zen beharrean: "Merkatal-sarea eratzeaz eta marketingaz arduratzen nintzen penintsulan eta Kanarietan". Volcom ezaguna dela esan dugu, baina hori, hain zuzen, Xabi Pintorren zor zaio hein handi batean. Beraren kontaktuei esker, marka asko hazi zen, eta beraren ugazabak ere polito aberastu. Hamar urte igarota, eta zenbait konturen gainean ados ez zegoela-eta, Pintorrek Volcom utzi eta Entrophy enpresa sortu du entzute handiko bazkide batzuk batera: besteak beste, Alain Goikoetxea, Iker Acero, Javier Sarmiento, Iker Fernandez... punta-puntako skater, surflari eta snowboarderrak. Ezer falta ez dadin, Isma Urzaiz Athleticceko aurrelaria ere taldean dago. "Kirol eta moda munduko marken irudiaz arduratzen gara", azaldu digu Pintorrek. Orain dela hiru aste hasi dira beharrean, Barrikan, Kantauri itsasoaren ikuspegi zoragarria eskaintzen duen bulegoan. Non bestela? m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Ajuria
taberna
Andrés Cortina 2
ALGORTA

530.000 euroko diru-laguntza

Kultur eta kirol elkarten zein euskara bultzatzeko ekitaldiak antolatzen dituzten taldeen artean diru-laguntzak banatu ditu Getxoko Udalak, guztira **60 bat talderen** artean zatikatu dute zenbatekoa

Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 530.000 euro banatzea erabaki du kultur, kirol eta euskara sustatzeko ekimenak antolatzen dituzten taldeen edota elkarten artean. Kopuru hori urteko diru-laguntzei dagokie, eta guztira aipatutako hiru esparru horietan diharduten Getxoko 61 elkarteren artean zatikatuko dute laguntza.

Kirol arloko diru-laguntzen gainean, Getxoko Udalak 370.000 euro zuzendu ditu. Hala, kopuru hori 32 kirol talderen artean banatuko dute. Horrez gainera, 22.500 euro gehiago emango dizkio Udalak "El Abra-Puerto Deportivo" elkarteari (Udala da bazkide nagusia), herriko bi arraun taldeen artean, Algorta eta Raspas, bana ditzan. Pasa den urtean bideratutako zenbatekoagaz alderatuta aurtengoa %3 hazi da udal arduradunek adierazi dutenez. Halaber, Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak argitu duenez, Getxo (34.000 euro) eta Arenas (18.000 euro) futbol taldeei emandako laguntzen arteko diferentziak honako arrazoi hau dauka: "Lehenengoak benak ordaintzen ditu argia, ura eta zelaiaren mantentze-lanen gastuak; ostera, bigarrenari dagokionez, Gobelako instalazioen gastuez Getxo Kirolak erakundea arduratzen da". Gainerakoan, Getxo Aixerrotako Boleibol Kirol taldeari iazko laguntza baino handiagoa eman diote, azaldu dutenez Euskadiko txapelketa eta Hondartzako txapelketa antolatuko dituelako aurretan.

Osterantzean, 20 kultur elkarteren artean 84.550 euro banatuko dituzte, eta diru-laguntza honek ere %3ko igoera izan du 2005ekoan



Algorta eta Raspas arraun taldeek laguntza jasoko dute

gaz alderatuz gero. Zarrakoak azaldutakoaren arabera, "esparru honetan ez da aldatuta handirik izan, elkarteak dagoeneko nabiko finkatuta baitaude, benien beharrak ezagunak dira eta aurrekontuak urte batetik bestera ez dira gehiegi aldatzen".

«Zubilletak, Geroak eta Aixerrotak laguntza jasoko dute euskara sustatzeko»

Euskara bultzatzeko

Amaitzeko, euskara sustatzearan eta beronen normalizazioaren alde behar egiten duten 9 talderentzat ia 55.000 euro bideratuko ditu Getxoko Udalak. Aurten Zubilleta eskolak, Geroa ikastolak eta Aixerrotako institutuak diru-laguntza txiki bat jasoko dute euskara ikastetxeetan sustatu ahal izateko. Egizu programara, horren barruan Getxoko hainbat euskategi eta elkartek

dihardute, 21.000 euro bideratuko ditu Udalak, kalean euskara sustatzeko zenbait ekimen bultzatzeagatik. Azkenik, Egizu barruan badago ere, bestelako ekitaldi batzuk ere antolatzen dituelako Bizarra Lepoan euskara elkarteak 17.370 euro jasoko ditu. m

Jakingarri

- **Kirola**
 - 32 talde.
 - 370.000 euro.
 - laz baino %3 gehiago eman dute.
- **Kultura**
 - 20 elkarte.
 - 84.550 euro.
 - Pasa den urteagaz alderatuz %3 hazi da zenbatekoa.
- **Euskara**
 - 9 talde.
 - 54.976 euro.

Salsiduko arrapala mekanikoen proiektua idazteko 40.457 euro bideratuko dute



Salsidu kale aldapsua

Getxoko Udaleko Gobernu Batzodeak 40.457 euro zuzendu ditu Salsidu kalean (Algorta) arrapala mekanikoen ipintzeko egitasmoa idazteko. Egiteko hori lau hilabeteko epean burutu beharko du enpresa arduradunak, eta proiektua osatzeaz gainera, lanak esleitze orduan eskaintzen baloraziorako proposamen txostena, eta instalazioen zaintza eta mantentze-lanak (epe labur, ertain zein luzean) zelakoak izan beharko luketen proposatuko dituen plana ere egin beharko dute.

Hala ere, udal zerbitzu teknikoek egitasmoaren zirimorro bat eratu dute, eta proiektua aurrera eramateko zailtasunak egon badaudela adierazi dute,

nagusiena kale horretan dauden hainbat garajeetako sarrera-irteerak saihestea izango da. Hala, udal zerbitzu teknikoek hurrengo planteamendua egin dute: Ollaretetik Iturgitxirainoko zatian arrapala mekanikoen eskuinaldean ipintzea; ostera, Iturgitxirik Kasunerainoko eta Kasunetik Villamonteko sarrerainoko beste bi tarteetan arrapalaren ezkerrean jartzea. Horrenbestez, egitasmoa idatziko duen enpresak erabakiko du proposamen hori aintzat hartu edota bestelako konponbideren bat aurkitu.

Osterantzean, Gobernu Batzordetik azaldu legez, Salsiduko arrapalen lanak gauzatzeko lehia-keta urte amaieran plazaratzea espero dute. m

“OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ” KANPAINA

“Ospatu eta oroitu” kanpainarekin getxoitarrek zorian-txartelak, gonbidapenak etab. euskaraz egin ditzaten gura du Getxoko Euskara Zerbitzuak. Horretarako, gonbidapen ereduak eta horiek eskaintzen dituzten inprenten zerrenda batzen dituen liburuak prestatu du eta leku jakin batzuetan banatu, gura duenak kontsultatzeko aukera izan dezan. Halaber, euskara zerbitzuan zein udalaren web-gunean (www.getxo.net) egongo dira ikusgai. Katalogoan agertzen ez den ereduaren bat eskatzeko aukera ere badago. Informazio gehiagorako 94 415 22 52 telefonora deitu edo gehi@getxo.net helbidera idatzi.

OKA BASERRIA BERTAN BEHERA BOTAKO DUTE

Oka kaleko baserria botatzeko baimena eman du Getxoko Udalak, jakinarazi duenez, eraikinak duen egoera oso txarra delako. Iñaki Zarrako alkatearen esanetan, aurreikusitako epean barruan etxea bertan behera botako dute eta, ondoren, behin betiko eraikitze proiektua aurkeztuko ei dute. Etorkizunean ingurua hobetuko dutela agindu du alkateak.



Bilatu zure
Renault
"Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81

Getxo Bizia

plataformak berriro eskatu du Portu Zaharrerako bidearen lanak gelditzeko

Orain dela bi aste inguru argitaratutako ohar baten bidez Getxo Bizia plataformak Galdaretxeko lanen legaltasunaz galdegin zuen eta, berriro ere, lanak ez hasteko eskatu. Itsasoari 4 metroko tartea kenduta bidea zabaltzeko Getxoko Udalararen egitasmoa aurrera doala azaldu zuen plataformak eta dagoeneko lanak esleituta daudela eta udan hastea aurreikusten dela. Getxo Biziak jakinarazi zuenez, Ereagatik Portu Zaharrera doan bidea Kultur Ondore legez sailkatuta dago, *“Babes Erregimenaren barnean, babes-zona gisa sailkatzen da, besteak beste, Arriluzetik Abasotara doan kostaldeko hiri-zati osoa; eta babes berezi gisa sailkatzen du Ereaga Kaia kalea, hots, lanak egin nahi diren lekua”*. Hala, plataformatik ondorioztatu dutenez *“lanak ezin dira egin Aldundiaren Kultura Sailaren aldeko txostenik gabe, eta itxura denez, Udalak ez du txosten hori tramitatu”*. Plataformak horren berri eman dio bai Udalari, bai Aldundiari, baita Jaurlaritzari ere. Halaber, Getxo Biziak salatu duenez, *“legealdiko obrarik handiena izan arren, ez da jendaurreko agerpenik egin, ez da Osoko Bilkuratik pasa, eta ez da galdapenak egiteko aukerarik eman”*. Alabaina, Hirigintzako zinegotzi Andres Uriartek esan duenez, *“lege eskakizun eta baimen guztiak eskatu eta bete egin dira”*. m

Portu Zaharrerako bidea



Natalia Monge > dantzaria

“Ez dauka zentzurik dantzako gradua ez dagoenean graduondo bat sortu nahi izatea”



Natalia Monge

Natalia Monge algortarra buru daukan Organik dantza garaikideko taldeak Nanclares de Oca gartzelako emakumezko presoen aurrean ES3IN emanaldia eskaini du orain dela gutxi. Esperientzia “itzela” izan dela dio. Hortaz eta bide batez gurean dantzaren egoeraz jardun du 33 urteko dantzariak.

—Zelan joan zen espetxeko ikuskizuna?

—Aspalditik neukan horrelako zerbait egiteko gogoia. Kasualitatez Nanclareseko esperientzia hau izan zuten dantzari batzuekin hitz egin nuen, haiek gizonezkoentzat egin zuten eta ez zuten debaterik egin. Niretzat ikuskizuna presoekin hitz egiteko aitzakia zen. Orain 2 urte Leioako Umore Azokan estreinatu genuen ES3IN ikuskizuna egin genuen, estresari buruzkoa da, eta gai hori jorratu nahi nuen haiekin. Patio batean egon ginen, emakume guztiak batera. Oso heavya izan zen! Gasteizko Antisidakoeekin joan ginen eta euretako bat ordura arte ez zen heldu patioraino. Emakume eta gizonentzat pase bana egitea zen asmoa, baina ez genuen denborarik, arratsalde 2 ordu libre bakarrik dituztelako. Antisidakoei galde-tu nien zeintzuk dauden egoera txarrenean eta

esan zuten emakumezkoak daudela askoz txarrrago. Patiora irten zirenerako guk tresnak, baffleak... dena prest geneukan eta harrিতuta geratu ziren: *“Mira musica, que pasada!”* Rolling-en kontzertua ematen zuen! Gelditu barik txaloka! 17. aldia da ES3IN egiten dugula, gehienetan kalean eta jaietan egiten dugunez giro nahiko majoa egoten da, baina hango itzela zen! Antisidakoeak deitu dit esanez: *“Oraindik ere zuetaz hitz egiten dute! ia noiz bueltatzen zareten...”*. Itzultzearena airean dago; baina, berriro egingo nuke, bai! Badakit ziur nire bizitzako esperientzia gogorrena izan dela; eurekin hitz egin genuen, uf! hamaika istorio; gehienak oso gaizki daude, zargalduta, yonkyak, kristoren pena! Baina guganako jarrerara izugarri ona izan zen, itzela!

«Gehienak oso gaizki daude... baina guganako presoek jarrera izugarri ona izan zen»

—Euskaldunako jaialdia dela-eta dantzaren egoeraren berri izan dugu. Zelan dakusazu?

—Euskaldunakoa ez nuen ikusi. Bestalde, dantza garaikideko elkarte berreskuratu dugu, horren bidez eztabaidagunea abiarazteko, azken boladan gauza asko gertatzen ari dira-eta. EHUtik deitu gaituzte, badirudielako sortu nahi dutela master bat. Asmo horrek ez dauka zentzu handirik; ez dagoelako gradurik eta graduondoa egin nahi dute! Gradua sortzearena airean dago eta bestea aurrera doa? Teilatutik hasiko gara etxea egiten! Dena dela, inor ez da dantzatik bizi hemen, Espainian agian Duatoren konpainiakoak, guztiok beste edozertan egin behar dugu lan. Jendeak oraindik ez dauka sentsibilitate hori, futbolaren eta zinearen gizarte bizi gara.

—Martxan ipintzeko proiektu berririk?

—Inprobisazio bat egin dugu eta besteren bat ere egingo dugu. Haurdun nengoela ere egin genuen zerbait, 8 hilabete eta 3 astegaz egin nuen dantzan! Eta proiektu berri bat ES3IN II edo, sortzeko laguntza eskatuko dugu. m

Mundiala Getxon

Fredi Paiak, Iturriagak, Elortzak, Lujanbiok, Arzallusek eta Egañak osatzen dute taldea



Argazkian, Unai Iturriaga

Balkoitik Balkoira ikuskizunari Bertso Jaialdi Mundialak hartzen dio urtero lekuko, uztailek ekainari hartzen dion legez. Eta Portu Zaharreko Etxetxu plazatik Biotz Alai plazara lekualdatzen du oholtza Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE).

Bertsozaleek ondo baino hobeto dauz-

kate akorduan urtero hitzorduok, hala eta guztiz ere gainontzekoak gal ez daitezen behintzat, hor doa Bertso Jaialdi Mundialaren egitarau osoa. Uztailearen 8rako, zapatua, ipini dute zita Biotz Alai plazan paratuko duten karpapean. Aurtengo protagonistek luxuzko kartela osatzen dute eta zaleek ziur eta seguru gozatua hartuko dutela, asko okertu beharko litzateke hala ez izateko. Azken urteotan Euskal Herriko txapela burutik kendu ez duen Andoni Egaña, azken bi urteotan bera txapel barik uzten polito ahalegindu diren Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio, aspaldian Bizkaiko txapelaren buru Igor Elortza, eta aurreko guztiek ginetik begirik kentzen ez dizkieten bi bertsolari gazte: Iparraldearen xarmaren eta nortasunaren adierazgarri den Amets Arzallus eta lapiko askotako burruntzali den herriko seme fin Fredi Paia dira Mundialeko taldea osatzen dutenak.

Norgehiagoka gaueko 10:00etan hasiko da, “epaile” Aitzol de Kastro izendatu dute, sarrerak ez dauka preziorik, (doan dira) eta dagoeneko zaletuak bero-bero daude! m

LETREN TERRAZAK ANTOLATU DITU UDALAK

Letren Terrazak edo Udako Liburutegiak jarriko ditu martxan Getxoko Udalak uztailearen 11n. Areetako Geltokia plazan (abuztuaren 25era arte), Algortako Geltokia plazan (abuztuaren 31ra arte) eta Andra Mariko Sarri plazan (abuztuaren 31ra arte) jarriko dituzte kaleko liburutegiak. Orduetgia, berriz, goizean, 12:00etatik 14:00etara eta, arratsaldean, 17:30etik 20:30era izango da, astelehenetik ostiralera.

EAE-KO LEHEN ZERBITZU KARTA IZANGO DU UDAL AGIRITEGIAK

EAEn Udak Agiritegi batean egiten den lehenbiziko Zerbitzuen Karta egin du Getxoko Agiritegiak. Horrela, bere bezeroei eskaintzen dion zerbitzuaren kalitatearekiko konpromisoa sendotu gura du Udalak. Besteak beste, honakoak dira Zerbitzuen Kartak eskaintzen dituenak: informazio orokorra, zerbitzuen zerrenda, txostenak eskuratzeko baldintzak eta konpromisoak.

PORTU ZAHARREKO JAIEN KARTELEN LEHIAKETA ABIAN DA

Portu Zaharreko Jaien XIII. Kartelen Lehiaketara aurkeztu gura duenak uztailearen 6ra arte izango du. Kartelak 58x45 zentimetroko neurria izan beharko du eta honako lema eraman: “Portu Zaharreko Jaiak 2006. Abuztuak 10-13”. Lanak Villamonteko kultur etxean aurkeztu beharko dira. Saria, berriz, 300 eurokoa izango da.



Algortako Etorbidea 104 zbk
48990 Algorta - GETXO
Tf: 94 460 66 71

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIAK IRAKASLEAK
BEHAR DITU LAN LAN POLTSA OSATZEKO

Bete beharreko baldintzak:

- Erdi-mailako titulua

Interesatuak bidali kurrikuluma helbide hone -

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

Joxe Belmonte > Leioako Udaleko Euskara teknikaria

“Leioan erabilera bultzatu behar da, ezagutza maila altuaren ondoan erabilera eskasa dago-eta”

Euskarara atxikia egin du lan betidanik Joxe Belmontek. Euskara irakaslea, euskaltegiko idazkari akademikoa eta zuzendaria izan da azken urteotan. Euskaraz artikulak idatzi izan ditu eta narrazio laburrak zein eleberriak kaleratu. Iaz hasi zen Leioako Euskara Teknikari bezala.



Argazkian, Joxe Belmonte

—Nola hartu zenuen kargu berria?

—Pozez, beste etapa bat, interesgarria, gainera, zabaltzen zelako nire lan-bizitzan, eta berau ere euskarari lotua.

—Nola ikusten duzu euskararen egoera Leioan?

—Lanpostuak baikor izatera narama, ezinbestean, baina onartu behar da datu positiboan ondoan beste datu kezagarri batzuk ere badaudela, ezagutza maila altuaren ondoan erabilera maila eskasa dagoela. Eta horixe da gure erronka: eza-gutza maila erabilera mailara hurbildu.

—Zein ekimen duzue esku artean?

—Merkatari izeneko kanpaina, Leioako komertzioetan euskararen presentzia areagotzea helburu duena; ERABILTOKI izeneko erabilera-gunearen sorrera; Leioako toponimia ere jasotzen ari gara; udal administrazioiko erabilera plana, une honetan diseinatuta eta inplementaziorako

gertu; euskara ikasten ari direnentzako diru laguntzak...

—Badirudi, gaurko umeez euskara dakitela baina ez dutela erabiltzen?

—Normalean umeez, familia euskaldun

batetik ez badatoz, ikasgelarekin elkartzen dute euskara, hau da, ikasketekin, ez ekintza ludikoekin, ez kaleko eta lagunarteko giro “irrikatsuekin”. Horregatik ikasgelaz kanpoko giro euskalduna sortu behar da ume horiek murgil daitezten, jolasen inguruan, irteeren inguruan, abentura edota erakargarriak izan daitezkeen ekintzen inguruan. Horixe egin nahi dugu Erabiltoki proiektuaren bidez, kasu

«Posible da Leioa elebiduna, eta horretara goaz»

honetan umeei bideratua izan beharrean gazte eta helduei bidaltzen bazaie ere. Umeez badute funtzio hori betetzen duten beste programa batzuk.

—Instituzioetatik behar beste egiten da?

—Ahalegin asko eta handiak egiten dira. Agian ahalegin horietako batzuk hobetu bideratu beharko lirarteke, hori bai. Argi geratu da azken urteotan gauza asko aldatu direlako hutsegite asko egin direla. Seguruenik geroko batean orain egiten ari garena ere zuzenduko dugu.

—Etorkizuna. Posible da Leioa euskalduna?

—Posible da Leioa elebiduna, eta horretara goaz. m

Monte Ikea irrati zaleak

“Leioatik, eguzkia, 25 gradu, haizea dabil... txanda” irrati eskuan uhinetan barrena bidaiatzera



RAMI taldeko lagun batzuk

Euskal Herrian uhinen bidez komunikatzen den irrati zale asko omen dago. Hala ere, R.A.M.I. elkarte (Radio Aficionados del Monte Ikea) Patxi Rodriguezek azaldu digunez internet eta sakelako telefonoen erruz beharakada handia nabaria da eta “rock-zale zaharrak besterik ez dira geratzen”. R.A.M.I taldeak legalki 4 urte beteko ditu, baina aurretik ere talde bezala jarduten zuten. “Lagun artean hasi eta momentu batean elkarte bezala funtzionatzea erabaki genuen”. Momentu honetan 21 bazkide daude taldean. Gehienak Leioakoak badira ere badaude elkartearen Bilboko, Santanderreko zein Valentziako irrati zaleak ere. Urtero 7 edo 8 aktibazio edo emanaldi egiten dituzte leku berezietatik. Esaterako,

“xarma berezia izan zuen Bizkaia Zubiko goi partetik emandakoak edo mendi bozineroretatik botatakoak”. Normalean bakoitzak bere herria ezagutzera ematen du irrati bidez.

Mundu liluragarria omen da uhinena eta benetako lagunak egiten dira irrati bidez. Patxi berak, esaterako 50 urtez irrati bidezko lagun bat pertsonalki ezagutu zuen ospitalean: “Ospitaleko ohean denbora pasatzeko irrati zale hasi eta hara non biok ospitale berean geunden!”. Irrati zale izateko gogoa ei da garrantzitsua. Irrati eta antena instalatu eta beharrezko lizentziak eskuratuta (Eco Alfa, Eco Charly Eco Bravo) uhinetan lagunak topa ditzakegu. “Leioatik, eguzkia, 25 gradu, haizea dabil...”. Horrela hasi ei dira elkarrizketak irrati bidez. m

LEIOA MENDI TALDEA GIPUZKOARA ETA ANDORRARA JOANGO DA

Leioa Mendi Taldeak uztaierako irteerak ezagutzera eman ditu. Hilaren 9an Gipuzkoa aldera joango dira. Pasaiatik Hondarribira doan ibilbidea prestatu dute kostaldetik Jaizkibel menditik (545 m.) igarota. Bestetik, ikasturteari amaiera emateko Andorran lau eguneko txangoa prestatu dute. Uztaieraren 22, 23, 24 eta 25ean Pic de Enclar (2.317 m.), Coma Pedrosa (2.942), Pic Serrera (2.913 m.) mendi tontorrak igo eta Pessons.Zirkuitua burutuko dute mendi taldekoek. Informazio gehiago astelehen eta ostegunetan Sakoneta Kiroldegian edo 689721917 telefonoan

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Kontxi Recio > Erandioko Kontsumo Bulegoko teknikaria

“Gure oporrak denboragaz planifikatu behar ditugu inolako ezustekorik egon ez dadin”

1985. urtean ireki zituen bere ateak Altzagan Erandioko Kontsumo Bulegoak. Beranduago, 1987an, Astrabudian ere ordezkari bat jarri zuen Udalak. Ordutik, bere jardura etenbako izan da eta makina bat ekintza antolatu ditu herritarrak informatzeko. Kontxi Recio bulegoko teknikariagaz egon gara.

—Zeintzuk dira Kontsumo Bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuak?

—Kontsumitzaileek dituzten eskubide eta betebeharen inguruan informatu, erreklamazioak bideratu, enpresaren eta bezeroaren artean bitartekaritza lana egin... Baina, aldi berean, hitzaldiak (energia aurreztea, olioaren ezaugarriak, behi-okela...) eta ekintzak (erakusketak, ikasleentzako jarduerak...) antolatzen ditugu. Nagusientzako eta umeentzako proiektuak dauzkagu.

—Salaketa ugari bideratzen ditu bulegoak?

—Urtea hasi zenetik, adibidez, 698 kontsulta eta 165 erreklamazio izan ditugu eta oraindik bidearen erdia besterik ez dugu egin! Jendea gehiago informatu beharko litzateke, baina jadanik arazoa dutenean etortzen dira gureru. Zerbitzuak eskatu edo zerbait erosi baino lehen informazioa eskuratu behar dute eta kontratu zein faktura guztiak gorde; bestela, zerbait txarto joanez gero, ezin izango



Kontxi Recio. 94 489 01 12 / 94 417 51 05

dute ezer frogatu.

—Zeintzuk dira arazorik ohikoena?

—Telefonoa, etxekoa zein sakelakoa, eta Internet. Gehienetan, ordainketa egitean izaten dira arazoak: eskatu ez dugun zerbitzua ordainarazten digute, Internet jarri eta konektatu ezin ahal izatea, kontratuen bajak sortzen dituzten tirabirak eta abar.

—Uda garaian gaude eta gutariko asko oporretan joango gara. Bidaia ondo presta-

tu beharko dugu ezusterik ez edukitzeko...

—Bai, denboragaz planifikatu behar ditugu eta bidaia agentzia bat baino gehiagora jo, informazioa kontrastatu ahal izateko. Egun oso erraza da hori egitea, Internet daukagu-eta. Behin bidaia erabakita, adostutako baldintza guztiak begiratu behar ditugu: lekua, ordutegia, hotela, zerbitzuak... Oso garrantzitsua: kontratuaren kopia eskuratu behar dugu eta agentziek ezin

«Zentzuzko kontsumoa egiten badugu, babestuta gaude»

dute prezioaren %40 baino gehiago aldez aurretik eskatu. Hoberena, joan aurretik Kontsumo Bulegora etortzea.

—Arazoren bat izanez gero, nora jo behar du bidaiariak?

—Beti eraman behar dugu gugaz bidaia agentziaren telefonoa eta erreklamazio orriak erabili behar ditugu. Arazoa larria bada, horren ardura duten tokian tokiko erakundeetara jo beharko du bezeroak. Hotelera heldu eta eskatutakoa baino kategoriatxikiagoa duela, katalogoa ez datorrela bat errealtateagaz, komunak lohi daudela edota hegazkina berandu heldu dela gertatzen da askotan. Beraz, kasu horietan komeni da jarraitu beharreko pausoak argi edukitzea. Bezeroak babestuta gaude, beti ere zentzuzko kontsumoa egiten badugu, noski. m

Horma-pintura lehiaketa

Altzagako Udal Azokan murala jartzeko lanak aurkeztuko dituzte **Arte Ederretako** ikasleek



Erandioko Udala eta Euskal Herriko Unibertsitatea dira egitasmoaren antolatzaileak

Altzagako Udal Azoka zaharrea horma-irudia jarri gura du Erandioko Udalak eta, horretarako, hitzarmena sinatu du Euskal Herriko Unibertsitateagaz murala lehiaketa bidez hautatzeko. Ekimenagaz, ikasleen sorkuntza sustatu eta burututako lanak hedatu gura ditu Udalak.

Lehiaketako oinarrien arabera, 2005-2006 ikasturtean Arte Ederretako fakultatean matrikulatutako ikasleek hartu ahal izango dute parte egitasmoan, taldeka zein bakarka.

Lanak 20 metroko zabalera eta 5 metroko altuera izan beharko du eta Udalak jarriko ditu oinarrizko materialak: pintura, aldarmioak etab. Teknika eta gaia askeak izango dira, baina ikasleek azokaren izaera eta koka-

pena kontuan har dezaten eskatu dute antolatzaileek.

Besteak beste, Erandioko Kultura Arloko zinegotziak, Arte Ederretako irakasle batek, Kulturako udal teknikariak, fakultateko dekanordeak eta udalerriko arteagaz erlazioatutako pertsona batek erabakiko dute uztailean irabazlea nor izango den eta hartzen duten erabakia aldaezina izango dela azpimarratzen dute ekimenaren bultzatzaileek. Gainera, margolanik onenak 2.000 euroko saria eskuratuko du.

Behin erabakia hartuta, Erandioko Udala bilakatuko da horren jabe eta herriko ondasun bezala gordeko da. Halaber, hura publikatzeko eta irudikatze eskubide osoa izango du Udalak. m

HAUR-ESKOLA BERRI BI IZANGO DITU ERANDIOK 2007AN

Erandioko Udalak haur-eskola bi irekiko ditu, 2007an, Astrabuduko Institutuan eta Altzagako Bekoa ikastetxean. Neurri horregaz, Oitk 2 urtera bitarteko umeak eskolatzeko udalerrian dagoen eskariari erantzuna eman gura dio Udalak. Egindako ikerketen arabera, Astrabuduko 31 familiak eta Altzagako beste 27k haur-eskolaren zerbitzuak erabiltzeko interesa agertu dute. Ikastetxe bakoitzak, beraz, 0 urteko umeentzat gela bi eta batekoentzat beste bi izango ditu.

ASTRABUDUKO KZ-GUNEAK BEHIN-BETIKO EGOITZA DU DAGOENEO

Astrabudian dagoen KZgunea Atxutegi kalean dagoen behin betiko egoitzara eraman dute dagoeneko. Internet zerbitzua eta formakuntza dohainik eskaintzen duen zentroa inauguratu zuten joan den azaroan, baina txikiagoa eta betirako ez zen lokal batean. Eskolak hartzeko bederatzita ordenagailu eta modu librean erabiltzeko beste sei izango dituzte erabiltzaileek. Eusko Jaurlaritzak eta Erandioko Udalak burututako elkarlanaren emaitza da KZgune berria.

BEGIRALE IKASTAROA ESKAINIKO DUTE ERANDION

Iraileko lehen hamabostaldian irekiko du Erandioko Euskara Zerbitzuak begirale ikastaroan izena emateko zerrenda. Parte hartu gura duenak 18 urte izan beharko ditu, edo 2007an bete. Ikasturte urte bikoia izango da eta eskolak asteburuetan emango dira, guztira 204 ordu. Behin kopuru hori beteta, ziertagiri ofiziala eskuratuko du ikasleak. Arduradunek jakinarazi dutenez, klaseak euskara hutsean eskainiko dira. Informazio gehiagorako: 944 890 128 edo euskara@erandioko-udala.net.


Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96


IRATI
moda gaztea opariak

Torre 2, ALGORTA
T.: 94 491 12 71


ARLAN

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz






EUSKAL KOSTALDEKO PRESIDENTETZA ESKURATU DU SOPELAK

Bizkaia Euskal Kostaldeko presidentetza bere gain hartu du Sopelak. Horrela erabaki zuten turismoa bultzatzen duen elkartearen osatzen duten kostaldeko 11 udalerriek ekainean egindako batzarrean. Sopelako udal ordezkariak, turismoa eskualdean bultzatzeko lan handia egin dute aurreko ekitaldian: Bizkaiko kostaldeko herriek eraturako elkartearen kide egin da Sopela eta, bigarren aldiz, beste turismo bulego bat irekiko dute udan zehar, metro geltokiaren ondoan. Udala, beraz, pozik agertu da gainerako udalerriek agertutako konfiantzagatik eta orain arte egindako lana aintzat hartu dela nabarmendu du.

TAKILAK JARRIKO DITUZTE HONDARTZAN

Sopelako hondartzak erabiltzaileentzako takilak izango ditu lapurretak ekiditeko. Ordaindu beharrekoa erabiltzen den denboraren arabera izango da. Hartara, takila lau orduz erabiliz gero, 50 zentimo ordaindu beharko du erabiltzaileak, 5 euro aste baterako alokatzen badu eta 15 hilabetegatik. Bestalde, ezbeharrak ez gertatzeko eta guztien erosotasuna bermatzeko, igerilarien zonaldea eta surfariena bereizteko balizak jarriko ditu Udalak. Horrez gain, eta urtero legez, dutxak (24) eta iturriak (8) jarri dituzte hondartzetan.

foto xabier argazkiak



- ezkontza erreportajeak
- estudio eta argazki industrialak
- kopiak ordu batean: negatiboak, diapositiboak, CDak, disketeak, txartelak....

T&F: 94 676 03 09
E-mail: saitua@terra.es
Doctor Landa, z/b SOPELA

www.fotoxabier.com

Karmengo jaiak

Hilak 13-16 bitartean dira jaiak eta txupina noiz lehertu irrikan daude **larrabasterratarak**



Erromoko Ehiztari taldeak joko du jaietan

Hilaren 13an Koadrilen Jaitsierak eman go die hasiera (19:00) Larrabasterrako jaiak. Ostean Urgitxieta plazan "Betizuak-Izar artean" ikuskizunagaz gozatu ahalko dute txikienek, eta Amargor (22:30) eta Koma taldeen kontzertuakaz gazteek. Hurrengo eguneko egitaraua 21:00etan hasiko da Hip Hop emanaldiagaz (Urgitxieta plaza), Ehiztari, Noizean Behin eta Bidebat taldeen kontzertuak txosna gunean izango dira (22:30) eta Amaier taldeagaz erromeria Urgitxietan (00:00). Zapatuan Marmitako lehiaketako partehartzaileek 10:00etan dute zita Urkon, bertan paratuko dituzte umeen jolas parkea eta ludoteka, baita Bi-

tsaren jaia ere. Kiñu taldeagaz erromeria 16:30ean hasiko da (Urko), "Todos Nacemos Vascos" antzerki lana 22:00etan eta gauerdian The Uski's taldearen kontzertuaren ostean Drindotsegaz berbena egongo da. Karmen eguna Barinatxeren kalejirak iratzarriko du, kadeteen txirrindulari lasterketa egongo da gero (10:30), umeek puzgarri, jumping, rokodromo eta tirolina jarduerakaz goiz eta arratsaldean gozatu dute, Kriskitin taldearean euskal dantzen emanaldia 13:00etan da, gero Uribe-Bazterra musika bandaren entzunaldia 13:45ean eta jaiak amaiera ematea Los Chimberos taldearen ardura izango da. m

Elkarren arteko laguntzarako elkarte humanitarioa

"Elkartekoen artean diru-bilketa egiten da hildakoaren familiari hileta-eta ordaintzen laguntzeko"



Maria Adoracion Etxebarria, Esther Unibaso eta Maritere Villalabeitia dira gaur egun arduradunak

Antzinako paperetatik ondorioztatu duteenez *Sociedad Humanitaria de Socorros Mutuos* (Elkarren arteko laguntzarako elkarte humanitarioa) 1915 aldera sortu zuen Sopelan Cipriano Intxaurtieta Abarkak. Sasoian sasoizko susperraldi eta behaldiakaz gaur arte iraun du elkarteak. Garai batean sopeloztar ia guztiak, baseritar denak eta herritar gehienak ei ziren elkartearen kide; orain, oster, "ohitura" hori galdu egin dela eta elkarte bera ere, arnasaldi berrien ezean, hilzorian dagoela adierazi dute bertako arduradun Maria Adoracion "Maridori" Etxebarria, Esther Unibasok eta Maritere Villalabeitiak.

Ordutik eta gaur arte irabazi asmo bako elkartearen helburua hau da: elkartearen kideen bat zendu denean gainontzeko elkartekideen artean diru-bilketa egiten dute, eta hildakoaren sendiari ematen diote hileta edota lur-ematea ordaintzen laguntzeko. Villalabeitiak zehaztu duenez, "famiabiurua da elkartearen kide, baina bere familia zuzena babesten da". Etxebarria akorduan daukenez, "ezkoberriei opari legez, urte batenako edo elkartearen kuota ordaintzen zien familiak

lehen". Izan ere, Etxebarria eta Unibasok arbasoengandik jaso dute lekukoa, hala ere, zera diote: "Nagusiek eroan dute beti elkartearen ardura, baina eunak hiltzen joan dira eta gazteek ez diote ohiturari lar ondo eutsi". Hala, herritarrei elkartearen izena emateko gonbitea luzatzen diete, "bai sopeloztarrei, baita Uribe Kostakoei ere; Sopelako historiaren zati den usadioa gal ez dadin, herritarren artean elkarri laguntzen jarraitzeko". Ez dute hilean zenbateko zehatzik ordaintzen, "amamatxo batek esaten zigun okasari hiruhilean 90 euro ordaintzen ziela! Gurean elkartearen kideen bat hiltzen denean bakarrik

«Haize berrien beharra dago elkartearen, bai bazkideei bai arduradunei begira»

ordaintzen da, 9 euro". 48 familia dira bazkide gaur egun, 98 lagun. Oraintsu Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakunde (BGAE) legez eman dute izena, eta jakin dutenez badira inguruan beste elkarte batzuk, indartsuak gainera, barbarako, Leioan, Lezaman eta Zamudion. m

Harremanetarako: 946761945 ala 946762243 edota sochumanitaria@yahoo.es

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhilom@euskalnet.net

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIAK
Taberna

Zatoz
gure tabernara!

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

SAHARA HEGOALDEKO HERRIALDEEI 3.000 EUROKO LAGUNTZA BIDLAKO DIETE

Berangoko Udalak marxan jarritako ekimen bati erantzunez, 2.000 euro eman dituzte berangoztarrek pobrezia gorrian dauden Sahara Hegoaldeko herrialdeei laguntza bidaltzeko. Zenbateko horri Udalak berak bideratutako 1.000 euro gehitu behar zaizkio, hala, guztira 3.000 euro emango dizkiote Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtzari (UNICEF) Sahara Hegoaldeko herriei laguntza igorri diezaien. Ekimenaren baitan, emandako euro bakoitzeko *Berango 21* ikurra daroan guardasola jaso dute laguntzaileek.

UNICEFi 3.000 euro emango dizkiote



UZTAILEAN ERE ARRATSALDEZ ZABALIK EGONGO DA LUDOTEKA

Hil honetan zehar zabalik jarraituko du ludotekak. Berangoeta kultur etxean garatzen den ekimenaren eskaintza hurrengo orduategian egingo da: 17:00etatik eta 20:00etara. Hala, ludoteka 3 eta 12 urte bitarteko umetxoentzat eta gaztetxoentzat zuzenduta dago eta bertan hainbat ekimen, ekitaldi, lantegi, jolas eta abar luzeaz gozatzeko aukera dago.

Gaztetxoentzako uztaila prest

Gazte Euskaltegia eta Uda Gaztea programak abian



Informazio gehiago: 94 668 21 43 edo 94 668 11 79

Berangoko kultur etxeek umeei eta gazteei begirako programa bana ipiniko dute marxan uztailean. Gazte Euskaltegia (hilaren 3tik 24ra) 6-12 urte bitartekoei zuzenduta dago eta Uda Gaztea (hilak 3-21) 13-18 urte bitartekoei. Bien helburuak parekoak dira: euskara lantzea eta bultzatzea, ekintza hezitzaileak izatea, norbanakoaren izaera garatzea, elkarrekiko harremanak sustatzea, etab.

VI. Gazte Euskaltegian 65 haurrek eman dute izena (hil osoa 40 euro), iaz baino hamar lagun gehiagok. Ekimenak 11:00etatik 13:00etara garatuko dira Berangoeta kultur etxean eta besteak beste lantegiak, jolasak, dantzak, eta egun osoko irteerak antolatuko dituzte. Horrez

gainera, ingelesa ere landuko dute ekintzetan bertan tartetxo bat eginez. Bestalde, aurtengo Gazte Euskaltegiak kultur aniztasunari ere garrantzia emango dio, hala lehengo astean Euskal Herriaren gaineko jarduerak prestatuko dituzte, bigarren astean Asiaren ingurukoak eta azkenengoan Afrikari buruzkoak.

Bestalde, II. Uda Gaztean 33 lagunek parte hartuko dute, pasa den urteagaz alderatuz hiru-koitza da aurtun partehartzaileen kopurua. Jarduera gehienak Santa Anako kultur etxean izango dira eta oraindik ekintzetan parte hartzeko aukera badago, ekintza batzuk, berbarako, hauek dira: graffiti eta zine lantegiak, surf ikastaroa, kayak eta gastronomia lehiaketa. m

Armintzako Karmengo Jaiak

Aurtun ere **Txapel Reggae** jaialdia antolatu dute Armintzako Jai Batzordeko kideek



Argazkian, Armintzako Jai Batzordeko lagun batzuk

Karmengo jaiak ospatuko dituzte armintzarrek hilaren 13tik 16ra. 10 bat lagun eta laguntzaile gehiagoz osatutako Armintzako Jai Batzordea kantsatu barik ibili da jaietako egitaraua betetzen, eta eurek azaldu legez, *“modu batera ala bestera dirua atenez, Udaleko laguntzagaz ez dugu nahikoa-eta”*. Zelan eta holan aurtengorako ere egitarau erakargarria prestatu dute eta Txapel Reggae arrakastatsua aurrera eroatea lortu: *“1990 aldera jaiotzen jaialdia, gero bi egunetan zehar egitea lortu zen; ostean, egiteari utzi genion denboraldi batez, eta orain dela hiru urte inguru berreskuratzen guren”*, adierazi dute.

Jaiaren hasierarako txupina hilaren 13an (19:00) botako dute, ostean herri triatloia egongo da, herri otarrainkadan aseko dute gosea, bertsolariakaz poteoa egingo dute eta txosna guneko Guatequean dantzan amaituko dute. Barikuan umeen jolasak eta puzgarriak antolatu dituzte, tortilla lehiaketa (17:00), tute txapelketa (19:00), sardina jana (20:00), mozzorro lehiaketa, Matxakao lehia-

keta, Bizargorri taldeagaz erromeria... Zapatuari zirko lantegiak emango dio ongi etorria, ostean rasta poteoa iragarri dute, mus txapelketa (17:30) eta abar luze bat. Azken eguneko egitarauak zera aurreikusten du: umore rallya (11:00), meza, *Voces del Ebro* taldearen emanaldia, itsasora prozesioa eta lora eskaintza (17:30), Pala partida profesionalak (19:00), playback lehiaketa... eta txokolatada jaietako agur esateko. m

Txapel Reggae

- **Taldeak:** Eclipse Reggae (Kanariar Uharteak) Kisap (Herralde Katalanak) Mood Rakers (Madril) 12Tribu (Euskal Herria) Garagardo Gura (Euskal Herria) Zelata Batuke Blokua (kalejira egun osoan)
- **Noiz:** Uztailearen 15ean
- **Ordua:** 23:00etan
- **Non:** Armintzako portuan
- **Sarrera:** Doan
- **Informazio gehiago:** <http://armintza.sytes.net>



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91
MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO
basalbobaserria@yahoo.com

cianoplan Reprografía
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
ermarkaketak •

EZINDUENTZAKO ZERBITZUAK IZANGO DITU GORLIZKO HONDARTZAK

Patxo Igartua alkateak jakinarazi duenez, aurren ere "Hondartzak denontzat" programa aplikatuko du Udalak, ezintasunen bat edo mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak hondartzara hurbildu ahal izateko. Minusbaliotasunak dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzea bilatzen du egitasmo honek. Horretarako, hondartzak zerbitzu berezi batzuk izango ditu, tartean, uretara sartzeko aukerak eta egokituriko muleta. Ekimena joan den udan jarri zuten martxan lehenbiziko aldiz, besteak beste, Bidaideak eta Heldu elkarteei esker. Programa uztailearen 1ean hasi eta irailaren 1ean amaituko da.

BIDAIARIAREN ESKUBIDEEN INGURUKO HITZALDIA PLENTZIAN

Uztailearen 11n, 17:30ean, bidaiariaren eskubideen inguruko hitzaldia eskainiko du Kontxi Recio Erandioko Kontsumo Bulegoko Teknikariak, Plentziako kultur etxean. Jardunaldietan parte hartu gura duenak izena eman beharko du uztailearen 6a baino lehen Goñi Portalen. Bidaia bat zelan prestatu eta oporretan gaudela eman daitezkeen arazoak azalduko ditu Recio: bidai txartela (non erosi, galera...); overbooking-a (zer da, eskubideak, kalte-ordainak...); atzerapenak eta ezeztapenak; hartu beharreko neurriak; fakturazioa, atzerapenak; eskubideak; etab.

URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA

Irakurketa txokoak kalean egongo dira uztailean



Besteak beste, Gorlizko hondartzan paratuko dute Irakurketa txokoak

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak iaz legez Irakurketa txokoak antolatu ditu uztaileko. 4-12 urte bitartekoentzako ekimenaren helburuak irakurzaletasuna bultzatzea eta aisialdian euskararen erabilera sustatzea dira. Hala, euskarazko 300 liburu edukiko dituzte irakurtzeko zain txikiak eta horrez gainera, ipuin kontalarien emanaldia-gaz gozatzeko aukera edukiko dute. Barrikan izan ezik, Mankomunitatea osatzen duten gainontzeko herrietan astean behin gauzatu-ko da Irakurketa Txokoaren eskaintza: Be-

रणon, Moreaga parkean; Lemoizen, Arminzako portuan; Urdulizen, Lehendakari Agirre plazan; Sopelan, Arrietara hondartzan; Plentzian, hondartzan; eta Gorlizen, Astondo hondartzan. Horrenbestez, Urdulizen martitzetan izango da, Lemoizen eguaztenetan, Berangon eguetan, Sopelan barikuetan, Plentzian zapatuetan eta Gorlizen domeketan. Urdulizen eta Lemoizen arratsaldez bakarrik egongo da (17:00-20:00), eta gainontzeko herrietan egun osoan zehar (12:00-14:30 eta 17:00-20:00).m

Uzt. 2 - 23

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

- ▶ **Ana Ansotegiren margolanak.** Goñi Portal. Uztailearen 1etik 15era arte.
- ▶ **Pilar Campanaren margolanak.** Goñi Portal. Uztailearen 16tik 30era arte.

LEIOA

- ▶ **2006ko erakusketa kolektiboa.** Kepha Bore, Juan Manuel Orta Valdes, Ana Isabel de Miguel eta Roberto Alcalde. Kultur Leioa. Uztailearen 3tik 23ra arte.

URDULIZ

- ▶ **Pintura erakusketa: Helduak.** Kultur etxea. Uztailearen 4tik 14ra arte.
- ▶ **Zur eta ehoziri lanak.** Kultur etxea. Uztailearen 18tik 28ra arte.

ZINEMA

GETXO

- ▶ **Gaurik laburrena.** Film laburren erakustaldia. Algortako Biotz Alai plaza. Uztaileak 6 (gaztelaniaz) eta 7 (euskaraz). 22:00.

PLENTZIA

- ▶ **Adam Sandler, 8 noches locas.** Umeentzako zinea. Goñi Portal. Uztaileak 1, zapatua. 18:00.
- ▶ **Manuale D'amore.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Uztaileak 7, barikua. 22:15.
- ▶ **Solo amigos.** Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Uztaileak 8, zapatua. 18:00.
- ▶ **Brokeback mountain.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Uztaileak 14, barikua. 22:15.
- ▶ **Shin Chan, aventuras en Henderland.** Umeentzako zinea. Goñi Portal. Uztaileak 15, zapatua. 18:00.



▶ Sukalkia

Rabu Eguna ospatuko dute Urdulizen

Datorren uztailearen 8an Rabu Eguna ospatuko dute Urdulizen eta, sukalkia prestatzeaz gain, makina bat ekintza antolatu dituzte egun horretarako. Eguna 9:00etan hasiko da txistularien kalejiragaz. 12:00etan, emanaldia eskainiko du Iratxo Gorria dantza taldeak eta, ondoren, harrizulatzaileren erakustaldia egongo da, Burdin Gazteak (Ortuella) Trapagararen (Trapaga) aurka. Herriko jaien alde behar egin dutenei omenalditxo bat egiteko ere tartea egongo da jan aurretik. Arratsalderako, koadrilen arteko herri kirolak prestatu dituzte: sokatira, txingarute eta txorokil bilketa. Ospakizuna 19:30ean amaituko da, sukalkiko epaimahaiak sari banaketa egiten duenean. Parte hartzera anima zaitzete!

- **Non:** Urduliz • **Noiz:** uztaileak 8 • **Ordua:** 9:00etatik 19:30era arte

▶ Flores rotas.

Helduentzako zinea. Goñi Portal. Uztaileak 21, barikua. 22:15.

- ▶ **Buenas noches, y buena suerte.** Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Uztaileak 22, zapatua. 18:00.

ANTZERKIA

LARRABASTERRA

- ▶ **Todos nacemos vascos.** Urko kiroldegia. Uztaileak 15, zapatua. 22:00.

MUSIKA

GETXO

- ▶ **XXX Europar Jazzaldia.** Getxo Antzokiko plaza (19:30) eta Biotz Alai plaza (21:30). Uztailearen 1etik 5era arte. Algortako The Piper's Irish Puben "Jam session"-ak egongo dira egunero (00:00).

ARMINTZA

- ▶ **Txapel Reggae 2006.** Honako talde hauek joko dute: Eclipse Reggae, Kisap, Moord

rakers, 12Tribu, Garagardo gura eta Zelata Batuke Blokua. Uztaileak 15, zapatua. 23:00.

LARRABASTERRA

- ▶ **Amargor taldearen kontzertua.** Urgitxeta plaza. Uztaileak 13, eguna. 22:30.
- ▶ **KOMA taldearen kontzertua.** Urgitxeta plaza. Uztaileak 13, eguna. 23:30.
- ▶ **HIP HOP ikuskizuna.** Urgitxeta plaza. Uztaileak 14, barikua. 21:00.
- ▶ **KONTZERTUAK.** Ehiztari, Noizean Behin eta Bidebat taldeak. Txosnak. Uztaileak 14, barikua. 22:30.
- ▶ **The Uski's taldearen kontzertua.** Urgitxeta plaza. Uztaileak 15, zapatua. 00:00. Ondoren, Drindots taldearen emanaldia.

BESTEAK

GETXO

- ▶ **Berto jaialdi mundiala.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztaileak 8, zapatua. 22:00.
- ▶ **XXII. Nazioarteko Folklore Jaialdia.** Portugalgo, Senegalgo eta Getxoko taldeak. Algortako Biotz Alai plaza. Uztailearen 21etik 23ra. 22:00. Sarrera dohainik.

LEIOA

- ▶ **Dantzaldia.** Aldapa auditoriuma. Uztaileak 2, 9 eta 16.

ARMINTZA

- ▶ **Karmengo jaiak.** Uztailearen 13tik 16ra arte.

LARRABASTERRA

- ▶ **Karmengo jaiak.** Uztailearen 13tik 16ra arte.
- ▶ **Betizuak izar artean.** Umeentzako animazioa. Urgitxeta plaza. Uztaileak 13, eguna. 20:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Balkoitik balkoira

Eguraldi txarra zela-eta balkoitik balkoira barik Portu Zaharreko Etxetxuko bazter batetik bestera egin zuten saioa Andoni Egañak eta Xabier Payak ekainaren 16ko gauean. 1998an, Algortako Bertsolari eskolak antolatuta, San Nikolas plazan egin zen lehenengo *Balkoitik balkoira* saioa Getxon eta hartan ere Egaña egon zen. Portu Zaharreko Etxetxun San Nikolas santuaren irudia dago eta hura izan zuten hizpide bertsolariek. Gogoangarriak saioaren akabuan Xabier Payak flamenko eran kantatu zituen bertsoak.


Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Paradoxa

Jon Bernardez

Bakearen aldeko eskultura dugu honako pistola hau. Armen zentzugabekeria adierazteko ipini ei zuen sormen lan hau eskultoreak New Yorken NBEk daukan egoitzan. AEBetako gizarteak armak defendatzen ditu modu sutsuan eta herrialde horretan kontraesan bihurtu da argazkilariak erretratatu duen artelanaren mezua.



NEW YORK, 1998

[berbetan]

Ezustekorik ez bada, behintzat, uztailaren 22an Getxon sexu bereko pertsonen arteko lehenengo ezkontza ospatuko da udaletxean. Mikel Gallaga algotarrak eta Pedro Arguelles kubatarrak agintarien aurrean *“bai, onartu egiten dut”* esango diote elkarri. Izan ere, ezkontza euskara hutsean egingo dute. Madrilgo Chueca auzoan bizi dira Mikel eta Pedro. Haraino joan gara gure nontzebarrieria ase guran.

Mikel Gallaga

“Bai, onartu egiten dut”

Testua & argazkiak: **Jokin Aspuru**

—Hasteko, Mikel, zorionak!

—Eskerrik asko, bihotzez.

—Kontaidazu, nola izango da ezkontza, zelan ospatuko duzue?

—Nire gusturako nahiko tradizionala izango da. Getxoko udaletxean ezkonduko gara. Imanol Landak ezkonduko gaitu, Euskara Zinegotzia da bera. Atzerriko lagunak ere etorriko direnez, Gipuzkoa aldeko sagardotegi batera joango gara gero, giro hori ezagut dezaten. Hasieran ezkontza gauza intimoa izango zela pentsatzen genuen, gurasoak, neba-arrebak eta Madrilgo lagun gutxi batzuk baino ez ginela elkartuko. Baina gero eta jende gehiago apuntatzen hasi da eta azkenean ez dakit udaletxeko areto nagusian kabituko garen. Baietz espero dezagun.

—Birritan ospatuko duzue ezkontza, lehenengo Getxon eta gero Kuban...

—Bai, Pedro nire senargaia Kubakoa da eta. Gainera santerismo errito baten bidez ezkonduko gara han. Pedro sante-roa da eta bere ama ere bai. Amak bere semea ezkonduko zela jakin zuenean halabeharrez santerismo erritua egin behar zela argi esan zigun. Santero batzuek, ez guztiak, sexu bereko pertsonen

artean ezkontzak onartzen dituzte. Erlijio anarkoa da eurena, ez dago jerarkiarik, ez du inork agintzen. Norberak bere santua dauka, asko daude, eta jakina, alde handiak egoten dira euren artean. Habanako Labanaco auzoan ezkonduko gara, auzorik txarrenean. Badakizu, guk beti tokirik txarretan ibiltzeko ohitura daukagu. Tira, ba, hango etxe berezi batean egingo dugu erritua. Hau irail aldean izango da, izan ere, irailaren 13an Pedoren amaren urtebetetzea ere bada. Pedrok urte mordo eman ditu hemen Kubara bueltatu ezin barik. Hemen ezkondu eta gero, paperak edukiko ditu eta itzuli ahal izan-

“Ez dakit udaletxeko areto nagusian kabituko ete garen”

go da. Uste dut oso gauza berezia izango dela familiarekin berriro ere elkartzea. Suposatzen dut hango ezkontza hemen ospatuko duguna baino dibertigarriagoa izango dela.

—Denboran atzera egin dezagun. Esaidazu Mikel, zelan ailegatu zinen zu Getxora, gipuzkoarra zara, ezta?


—Ez, ez. Bilbon jaio nintzen ni, baina

txikitik Donostia aldera joan nintzen, gurasoek lana han zeukatelako. Donostian bertan bizitzen egon ginen eta gero Lasarten. 16 urte neuzkala aita Bilbora bidali zuten behar egitera. Beno, kontua da 16 urterekin Getxo 3 institutuan sartu nintzela. Leku berri eta desberdina zen niretzat eta eman nituen urte batzuk neure lekua topatzen. Eta baita aurkitu ere. Tokirik txarrenak jakina, bai Algortan, baita gero Bilbon ere. Zergatik? Ez dakit, gay askori gertatzen zaigu hau.

Institutuko ikasketak amaitu eta gero lanean hasi nintzen. Aldi berean nire kabuz heziketa fisikoa ikasten jarraitu nuen.

Pentsatzen nuen heziketa fisikoa bazela modu bat osasuna mantentzeko. Kirola ez nuen kompetentzia bezala ikusten, bizimodu bezala baizik. Eta gimnasioko monitorea izaten hasi nintzen, gimnasia eskolak ematen. Adibidez, Bizarra Lepoan Euskara Elkartean aerobic talde oso majoa lortu genuen. Kapoeira ikasten ere hasi nintzen Bilbon. Bukatu nuenean, ez

Mikel eta Pedro, Madrilgo Chueca auzoko kale batean >



nuen hemen gehiago ikasten segitzeko profesional onik aurkitu eta Madriler a etortzeko erabakia hartu nuen. Bilbo txiki lotu zitzaidan. Bestetik, esan behar dut, Bilbon mundu guztia ezagutzen nuela eta, okerrera, mundu guztiak ezagutzen ninduela. Gaztea banintzen ere, gau giroan zaharrenetako nintzen. Madriler a etorri nintzenean oso gustura sentitu nintzen. Hemen nire adineko jendea ikusten nuen mobida mordotan. Eta Madrilen geratzera erabaki nuen. Bestalde, Madrilen mutil gehiago zegoen... Baina erabakia hartzerakoan, gehiago hartu nuen nire burua hain toki txikian ikusten ez nuelako.

Hala ere, nire burua hemendik urte batzuetara Bilbon ikusten dut. Bilbo nire hiria da eta Euskal Herria nire herria. Bertan eman nahi ditut nire azken egunak. Baina hori gertatuko da dauzkadan bizigogoak bukatuko zaizkidanean, eta oraingoz gauza berriak egiteko gogo piloa daukat. Madril hiri handian nire adinako jende asko eta asko oraindik egoera prekarioan bizi da; pisu konpartituetan, egunero kalera ateratzen bizirik iraun ahal izateko... 1965ekoa naiz, badauzkat 41 urte baina mobida honetan segitu nahi dut. —Sexu berekoen arteko lehenengo ezkontza izango da zuena Getxon, herri nahiko kontserbadorean. Horren aurrean zer sentitzen da? Herriko historian behintzat azalduko zara.

—*Me la pela bastante*. Algorta kontserbadorea da, baita Algortako ezkertiar asko ere. Hasieran ezin nuen sinetsi ezkontzen lehenengoak izango ginenik, ez nekien hala zenik, harritu egin nintzen. Eta bai, akaso izen bat edukiko dugu herriko historiaren. Baina niretzat garrantzitsua nire gurasoak oso pozik daudela da, zentzuzko naizela, *que voy a sentar la cabeza*, pentsatzen dute. Eta ez! Eurengatik sentitzen dut... baina erratuta daude!

—Itzul gaitzen zure gaztarora. Zu baino apur bat gazteagoa naiz ni eta institutu berean ikasi nuen. Oso ausarta zinen orduan. Gonarekin jantzita gogoratzen

zaitut nik institutuan.

—Gaztetan bolada oso errebeldea eduki nuen. Nahiz eta euskaldun eta abertzalea izan, garai horretan zegoen kultura ez zitzaidan bat ere gustatzen. Agian gaur egun gehiago gustatzen zait. 80ko hamarkadan asko gustatzen zitzaizkidan talde ingelesak eta amerikarrak. Disko horiek erosten nituen eta eurak bezalakoak izan nahi nuen, janzkeran, jarreretan... Banekien garai horietan eramaten nuen itxura *po-*

“Estatuak guztia arautu nahi du eta niri hori ez zait batere gustatzen”

tentea zela, oso deigarria. Orain garai hartako argazkiak ikusi eta lotsa apur bat ere sentitzen dut. Baina orduan nik horretan sinesten nuen. Garai hartan mutilek Levis 501, kamiseta marineroak eta nautikoak janzten zituzten, neska guztiak berriz, Fancy dendako arropekin zebiltzan. Negargarria. Eta nik ezin nuen horrelakorik eraman, ez nuen horretan sinesten. Beste gauza batzuk bilatzen nituen nik, beste itxura bat. Eta egia esan horrek asko lagundu zidan.

—Nola bizi izan zenuen zure homosexualitatea orduko giro hartan.

—Lotsagabekeria eta deskaro handiaren. Nik neuk horrela izatea erabaki nuen. Esan nuen: ea Mikel, homosexuala zara

“Algorta kontserbadorea da, baita Algortako ezkertiar asko ere”

eta gainera izan nahi duzu. Gizartea zen modukoa zen eta erabaki nuen lotsagabekeria harekin bizi eta azaltzea. Itxura harekin banekien jende jatorra, nik gogokoa nuena hurbilduko zitzaidala. Besteetaz paso egiten nuen guztiz. Nire erako jendea ezagutzeko aukerak errazten zidan itxura hark. Argi neukan Algortan ez nuela nire lekua aurkituko. Beno aurkitu nuen lekutxo bat ezker erradikaleko lagun batzuen

altzoan. Gero akordaten naiz, herriko tabernazulo bakarrera, Chamizo deitzen zena, jotzen nuela sarritan. Han elkartzen ginen bizimodu txarreko herriko lau katuak; marikoiak, trafikanteak... Gero Bilbora joaten hasi nintzen gauero, egunero, astebururo. Bilboko zulo haietan konaturatu nintzen homosexualitatea txarra izateaz gain *la bomba* ere bazela. 18 urterekin astero jotzen nuen larrua. Gero nire klasekideak ikusten nituen eta gehienek ez

zuten ezta titi bat bera ere laztantzeko aukerarik izaten, *no se comian ni una rosca*. Izan nituen nire esperientziak, agian batzuk txarrak, baina azken batean neurek: pertsonekin, musikarekin, drogekin, jaiarekin... Homosexuala izateagatik oso jende interesgarria ezagutzeko aukera eduki dut, beharbada heterosexuala izanda ezagutuko ez nuena.

—Gay izateagatik gutxiespenik-edo sentitu duzu inoiz?

—Bai, baina arbuio hori era positiboan bizi izan dut. Eskerrak gizarte honek baztertzen nauela, ze gizarte hau ez zait batere interesatzen. Egia da gizartea asko aldatu dela. Lehen *marikoi* edo *maritxu* iraina zen, gaur egun ez du apenas inork

esaten horrelakorik. Eta bazterketa hori? Niri bost! Ez naiz sekula egon armairu batean sartuta. Akaso momentu jakin batzuetan edo pertsona zehatz batzuekin, ez naiz gay bezala azaldu, bai. Baina nik beti onartu izan dut nire homosexualitatea.

—Barkatu indiskrekzioa, zergatik jeneralean homosexualak zarete hain promiskuak?

—(Barreak). Gizonezkoak garelako lagun.

—Orain ezkonduko zara...

—Baina promiskuoa izaten jarraituko dut (barreak). Ez, ez. Txantxa da. Orain ezkonduko naiz eta ea zer geratzen den. Ez da bikotekidea daukadan lehenengo aldia eta bikotekidea eduki izan dudanean oso fidela izan naiz beti. Ezkonduko gara eta zinegotziak esango du: *os declaro marido y marido*. Beno, hori ez. Esango du, akaso: *senar eta senar*. Ezkontza euskaraz ospatuko dugulako. Baina esaten nizuna, gayok promiskuok gara gizonezkoak garelako. Hortxe dituzu lesbianak, gehien gehienak oso fidelak. Euri ez zaie galdetzen ea zergaitik ete diren hain fidelak? Gizonezkook eta emakumezkoak berdin bizi dugu sexua. Eta pentsatu, gizonak gizonekin elkartzen garenean, hori *la letxe* da! Homosexualak promiskuok gara, baina baita ezkondu dauden gizon heterosexualak ere. Gehienak gainera putetxeetara doaz eta neska batekin egozteagatik ordaintzen dute, %80k edo. Homosexualok, normalean, ez dugu ordaintzen!

—Zergatik erabaki duzu Getxon ezkontzea eta ez Madrilen?

—Getxon nago erroldatuta. Ez dut herriarekin erabat moztu. Nik inoiz aukera badago independentziaren alde eman nahi nuke botoa. Madrilen bizi naiz hiri handi eta jatorra delako, baina guztiz euskaldun sentitzen naiz.

—Zer deritzozu zuen ezkontzak arautu dituen lege honen gainean?

—Ni betidanik izan naiz ezkontzearen aurkako. Ez dut inoren baimenik behar inor maitatu eta nire bizitza konpartitzeko. Maitasuna bihotzeko gauza da, eta horrela izan da nire bizitzan. Sekula ez dut ulertu heterosexualen jarrera, zergatik ezkontzen diren gehienak. Uste dut lege honek nolabait normalizatu gaituela, arau baten barruan sartu gaituela. Baina ni ez naiz batere normala eta gainera ez dut izan nahi. Edozein sexuko pertsonekin ezkontzeko aukera ematen digu lege berri honek. Estatuak guztia kontrolatu

nahi izaten du eta niri hori ez zait batere gustatzen. Nik nire gogoeta pertsonala egiten dut eta lege hau beste modura erabil daitekeela pentsatzen dut. Esaterako, lege kanpo dauden pertsonen egoera hobetzeko erabil daiteke. Pena da Estatuak oraindik poligamia ez onartzea.

Bestetik, esan behar dut, Madrilen behintzat ezkontzen direnak tradizionalak izaten direla, heterosexualak bezala. PPtik hurbil dauden gay eta lesbianak ezkontzen hasi dira.

—Aldea dago kontu hauetan Madril eta Euskal Herria artean?

—Ez dut uste Euskal Herrian egoera Madrilen baino hobea denik. Madril Espainia da eta gainera hiri handi bat. Madrilke badu Euskal Herri osoa baino biztanle gehiago. Hala ere, nik uste dut Euskal Herriko jendea Madrilgoa baino modernoagoa dela, gutxienez teorian.

Euskaldunok lehenengo gauzak pentsatu, gero onartzen ditugu eta azkenean *a sako* joaten gara horien alde. Nire ustez Euskal Herria zabalagoa da orain. Madrilen PP agintean dago, eta komunitatean ere bai. Baina gay izatearen kontuarekin zer gertatzen da Madrilen? Ba Madrilen Chueca dagoela eta horrek badu bere garrantzia.

—Zu hantxe bizi zara, Estatuko gay auzoan..

—Chueca auzo komertzial ere bihurtu da orain. Hala ere, hemen bizi nahi nuen. Herri homosexual txiki batean bizi naiz ni, 20.000 lagun inguru gara Chuecan. Ez dut metrarik hartzen, ez naiz apenas Chuecatik irteten, hemen daukat behar dudana guztia. Batzuetan Lavapiesera joaten naiz baina leku jakin batzuetara baino ez. Chuecan bizi naiz, euskaldun, gay eta independentista bezala, eta oraingoz behintzat ez dut inongo arazorik izan. m



Zelakoak gara?



Irailean bueltatuko da Anna bere jaioterrira

Anna Haller (Suitza) > Politika Zientziak

“Euskaldunak eskuzabalak zarete”

Bernakoa da Anna eta, suitzar gehienak bezala, makina bat hizkuntza berba egiteko gai da: alemaniera (ama hizkuntza), frantsesa, italiara, ingelesa eta gaztelania. Betidanik gura izan du Euskal Herrira etorri eta unibertsitateen zerrendan Bilbo ikusi zuenean ez zuen zalantzarik izan. *“Lagunek ondo zegoela esaten zidaten eta kulturak zein hizkuntzak liluratzen ninduten”*. Orain pixkat gehiago ezagutzen gaituela, bizimodua hain ezberdina ez dela dio Annak. *“Hala eta guztiz ere, ez naiz ordutegietara moldatu, 14:00etatik 17:00etara ez dago inor kalean, nahiko arraroa da hori niretzat”*.

Unibertsitatearen funtzionatzeko modua gogoko ez duen arren, ikasturte oso ona igaro duela azpimarratzen du ikasleak. *“Euskaldunak ez zarete esaten duten bezain itxiak, jai zaleak eta oso eskuzabalak zarete. Edozer behar izanez gero, laguntzeko prest dagoen jendeagaz egin dut topo”*. Hala ere, politikaz gehiago berba egingo zela espero zuen Annak. *“Egoera politikoa hemen oso garrantzitsua da, baina kalean ez da horri buruz hitz egiten”*. m

Luca Storto (Italia) > Politika Zientziak

“Hemengo politika interesgarria da”

“Euskal Herriko egoera politikoak asko erakartzen nau eta horregatik erabaki nuen hona etortzea. Hemen bizitzen, euskaldunek eskatzen duzuen zergatik eskatzen duzuen uler dezaket. Gainera, Euskal Herriaren inguruko lan batez amaitu gura ditut ikasketak Italian”, azaltzen du Luca Politika Zientzietako ikasleak. Sentimendu abertzalea gure artean izugarria dela dio Lucak eta horrek harritu egin du. *“Ez nuen pentsatzen hainbesteko zenik. Kalean izendegietan hizkuntza biak erabiltzeak, eskolak euskara hutsean emateak eta komunikabide batzuek euskaraz jarduteak harritu egin nau, benetan”*. Horrez gain, gazteen iritzia hemen aintzat hartzen dela nabarmentzen du, *“Italian ez bezala”*.

“Oso pozik noa etxera. Erasmus guztiok izan beharko genukeen esperientzia dela uste dut. Euskal Herrira etortzea gomendatzen dut. Bartzelonan eta Andaluzian egon naiz, baina hau ezberdina da, guztiz”, agurtzen gaitu. Abuztuan itzuliko da Luca Italiako lagunakaz, Bilboko Aste Nagusiko jaiaz gozatzea eta hemen utziko dituen lagunei bisita egitera. m



Leioako unibertsitatea Italiakoak baino hobea dela uste du Lucak

Ikasturtero Euskal Herriko unibertsitateetara heltzen diren Europako beste herrialde batzuetako ikasleakaz egon gara orainoan. Irailean ailegatu ziren, euskaraz zein gaztelaniaz tutik ere ez zekitela eta maletan aurreiritzi pilo batez. Bederatzi hilabetez gure artean eta gure modura bizi ondoren, euren iritzia eman digute EHU ikasi duten sei Erasmusek eta Euskal Herriaren zein euskaldunaren erretratu bat egin. Denetarik aurkitu dugu, bizitako esperientziaren arabera dira-eta eurek emandako iritzia. Zelan ikusten gaituzte euskaldunok atzerriko begiakaz? / Testuak: **Oiane Moran** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Mariangela Artese (Italia) > Soziologia

“Jendea nahiko itxia iruditu zait”

Erromatik hur dagoen herri txiki batetik, San Salvotik, dator Mariangela. Bidaiatzea dauka gustuko eta, beste modu batera bizitzeko aukera zeukala ikusita, Euskal Herrira etorri zen. Hasieran, ordea, ez zen oso pozik egon gure artean, *“nahiko itxia”* garelako uste du-eta. Baina ikaskideak ezagutzaz joan ahala, jendea Italian baino *“benetakoagoa”* dela konturatu da. *“Orain, adibidez, ez dut erasmuseko beste ikasleakaz harremanik, ditudan lagun guztiak hemengoak dira. Agian nire bizitzeko filosofiagatik, hemengo jendea naturalagoa iruditzen zait, nire herrialdean itzelezko garrantzia ematen zaio-eta itxurari. Euskalduna bihotz onekoa da eta Italian euskal kulturaren inguruan izugarriko ezjakintasuna dagoela uste dut”,* argitzen du italiarrak. Hain gustura dago orain Bilbon ezen uda guztia Euskal Herrian ematea erabaki baitu.

Unibertsitatean ere primeran dago, Italian baino praktika gehiago dagoelako. *“Hemen lan ugari egiten dut eta horrek ase egiten nau. Jendearen aurrean hitz egitea ere gauza berria izan da”*. m



Jendeak autobusari erreskadan itxarotea sinesgaitza egin zitzaion

Anthony Mulira (Ingalaterra) > Nazioarteko Harremanak

“Hiritik mendia ikustea kristona da”

Mahai baten inguruan guztiok elkarrekin jateko daukagun ohitura gogoko duela dio Anthonyk. Birminghamekoak da jatorriz, baina Atzerriko Harremanak ikasten dabil Galesko unibertsitate batean. Pozik dago ikaslea gure artean eta Euskal Herria oso polita iruditu zaiola nabarmentzen du. *“Hiriek Erresuma Batukoek baino berde gehiago dute. Bilboko hirigunetik mendiak ikusi ahal izatea kristona da niretzat”*. Horrez gain, hemen eguna luzeagoa dela uste du, bere ustez, guztia beranduago hasi eta beranduago amaitzen dugulako. Euskaldunon inguruan, berriz, ezagutzeko nahiko gaxak garelako; hala ere, ohituta dago gaztea, *“eskoziarrakaz antzekoa da-eta”*.

Unibertsitatea ere nahiko ezberdina dela azpimarratzen du Anthonyk. *“Hemen irakasleek emandako eskola gehiago ditugu. Galesen eskolatik kanpo gehiago irakurri behar duzu eta, ondoren, eztabaidak egiten ditugu. Euskal Herrian ikasgai gehiago dituzu, ordea”,* azaltzen du. Harro dago irakasleek bidalitako behar guztiak gaztelaniaz egin dituelako, *“asko ikasi dut”*. m



Uztailera arte geratuko da Euskal Herriko uda ezagutzeko



Garyk Euskal Herrian igaroko du uda osoa

Gary Grennan (Irlanda) > Hizkuntzak “Koadrilagaz irtetea gogoko dut”

“**Hizkuntza** eta kultura ikasketak” da Gary Grennanek bere jaioterrian ikasten duena, guretzako arrotza dena baina Irlandan hedaturik dagoen karrera. Esan beharra dago, irlandarra bere kabuz etorri dela gurera gaztelania ikasteko asmoz; izan ere, joan den urtean izan zen Erasmus beka batez Alemanian, hango hizkuntza ikasten. Halere, bere esperientzia ikasleen antzekoa dela esan dezakegu, oraingoan ere hemengo unibertsitatera lotuta dago-eta.

Ez da lehenbiziko aldia Gary Euskal Herrira datorrela, 2000az geroztik askotan izan da hemen, lagunak ditu-eta. “*Euskal Herria izugarri polita da. Bizimodua eta kodrilan irtetea atsegin dut*”, dio Garyk. “*Gainera errazagoa da irlandarrentzat jendea ezagutzea, Euskal Herrian abegi handiz hartzen gaituztela uste dut-eta. Anai-arrebak bezalakoak gara*”.

Hala eta guztiz ere, bizitako esperientzia nahiko gaxa izan dela onartzen du ikasleak. “*Alemanian izan nintzenean ni bezalako ikasle ugari zegoen. Oraingoan, ordea, bakarrik etortzean nahiko galduta ibili naiz batzuetan*”. Egoera horrek, baina, gauza asko erakutsi dizkiola azpimarratzen du eta errepikatzeke esperientzia dela ziurtatu. “*Bueltatuko naiz!*”. m

Joanna Stanik (Polonia) > Soziologia “Lagun oso onak egin ditut”

Lauhileko baterako soilik etorri zen Joanna gure artera eta hain gustora egon da ezen ekainera arte luzatu baitu bere egonaldia Euskal Herrian. Orain, etxera, Poloniara, itzultzeko sasoi heldu zaio eta pena ematen diola deitoratzen du, “*batez ere orain, hondartzara joateko eguraldi ona heldu denean*”. Hasieran Erandion bizi bazen ere, Bilbora aldatu zen eta hiri perfektua dela dio, “*ez handia, ez txikia*”.

Hasiera batean, ez zegoen Poloniako ikaslearen planen barnean Erasmus beka bat hartzea, baina bere mutil laguna Portugalera zihoala ikustean, berak ere atzerrira joatea erabaki zuen. Berehala moldatu zen Joanna gure bizimodura eta unibertsitatea bere herrikoaren antzekoa dela azaldu du. “*Agian, nire ikasgaia hemen askoz teorikoagoa da eta Polonian ikerketa asko egin behar dut. Aldiz, nire herrialdeko irakasleak askoz zarratuagoak dira eta hemen, oso jatorrak izateaz gain, tutoria orduak errespetatzen dituzte, ez Polonian bezalaxe*”.

Bidaiatzeko eta jendea ezagutzeko aukera ere izan du. Euskaldunok itxiak gabela dio, baina pozik dago lagun oso onak egin dituelako. Mendia eta itsasoaren arteko kontrasteak ere txunditu egin du poloniar gazte hau. m

Euskal Herriko hondartzak izugarri atsegin ditu Joannak

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu



HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefona.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37



Udan ere



bai euskarari

Udan ere Bai Euskarari! Sartu www.baieuskarari.org webgunean eta ikusi zeintzuk diren Bai Euskarari Ziurtagiria duten ostatu, hotel, jatetxe eta saltokiak, eta kontuan har itzazu!

Ez ahaztu, udan ere bai euskarari!



Basurto

Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



Aro berria

Ereagako “hiri-antolamenduaren” argazkiak dira honako hauek, edo bestela esanda, hondartzako komunak eta aldagelak eraiki zituztenekoak. 1965. urtean lanak hasi eta urte bereko udarako amaitu zituzten. Inaugurazioan egon ziren, protokoloak garai hartan eskatzen zuen bezala, alkatea, zinegotziak eta abadea. Ereagako hondartza erdi-basati izateari utzi eta kosmopolita bihurtu zeneko irudiak, aro berrien testigantza moduan gorde direnak.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**



zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema eta hausnarketa

Jarraian aurkeztuko dudan iritziarekin bat baino gehiago – segur aski – ez da batere ados egongo, baina nire uste apalean egia borobila ez baldin bada oso urrun ez dabil. Arteak dituen adierazpen desberdinen artean zinema hausnarketarako zabaltzen dituen bideengatik, zazpi arteetako garrantzitsuenetarikoa bat da. Arlo honetan literaturak ere garrantzi handia du, baina honek ez du zinema duen indar eta eragin zuzena eta zehatza ikusleen eremu emozionalean jotzeko. Eremu honetatik – hausnarketan bidez - eremu intelektualera pasatu behar dugu, bestela zinema duen ahalmena alferrik galduko litzateke. Eta betiko auzia hauxe da: nola gara daiteke hausnarketarako daukagun gaitasuna? Zalantzarik gabe, filmen aurrean jarraera kritikoa izanik. Baina horrez gain, film ikerketari buruz zerbaite jakitea komeni zaigu. Beraz, ikus ditzagun zenbat ikuspuntu desberdinetatik azter daitekeen film bat eta gai honi buruz zer dagoen argitaraturik. Filma aztertzerakoan beste alderdi batzuen artean hauek kontuan har ditzakegu: zinemaren alderdi soziologikoa, psikologikoa, semiotikoa eta estetikoa. Eta orain zinema azterketa gai honi argitasuna ematen dioten argitalpen batzuk aipatuko ditugu: *Zer da filma ona?*, Laurent Jullier; *Nola aztertu filma bat?*, Francesco Casetti eta Federico di Chio; *Zinea ikusten ikastea*, Juan Francisco Gonzalez; *Film azterketa*, Jacques Aumont eta Michel Marie; *Nola egin filmaren testuaren iruzkina*, Ramón Carmona; *Azterketa zinematografikoa. Eredutegiriak. Metodologiak. Azterketa ariketak*, Jesús González Requena; baita gai honetaz EHUko irakaslea dena Santos Zunzunegik argitaratutakoa ere.

Zazpigarren artea laburrean

Gaurik Laburrena emanaldiak 20 film labur baino gehiago eskainiko ditu hilaren 6an eta 7an

Film laburrak izar bihurtzen diren gauak izango dira uztailaren 6koa eta 7koa (22:00). Lehenengo gaua gaztelaniazko film laburrei begirakoa izango da eta 14 bat emango dituzte. Bigarrena, ostera, ekoizpen euskaldunei zuzenduta dago eta orduan 6 film eta Larrotxene kultur etxeak (Donostia) bultzatutako egitasmotik sortu diren beste lan batzuk ere egongo dira gozagai. Ohi legez, Bihotz Alai plazako karpapean lekutuko da Gaurik Laburrena ekimena. Horrez gainera, antolatzaileen berbetan, *“ekimen hau zinegile gazteen lana bultzatzeko plataforma ezinhobea da, honi esker azken lanak publikoari aurkez diezazkieketelako”*.

Hala, lehenengo gauen gaztelaniazko hurrengo lanak egongo dira ikusgai: Videoblog *Quevidamastriste.com* (Rubén Ontiveros), *Blas* (Javier Gullón), *Casa* (Manuel Sanchez Muñoz), *Domingo* (Na-

«6 film eta Larrotxenekoan beste lan batzuk egongo dira gozagai euskaraz»

cho Vigalondo), *24 instantes* (Daniel Chamorro), *Cirugia* (Alberto Gonzalez), *Coolness* (Daniel Rebner), *Semantica* (José Atienza “Ati”), *Corrientes circulares* (Mikel Alvaríño), *Eramos pocos* (Borja Cobeaga), *Sofia* (Alvaro Brechner), *Choque* (Nacho



Argazkian, Nacho Vigalondo

Vigalondo), *El gran Zambini* (Igor Legarreta y Emilio Pérez), eta *Sintonia* (Jose Mari Goenaga). Osterantzean, biharamuneko izarrek besteak beste hauek izango dira: *Mezularia* (Iñigo Iruretagoiena eta Amaia Urzelai), *Irreal?* (Iñigo Iruretagoiena eta Joseba Beristain), *Sarean* (Asier Altuna), *Berkeleyren tesia* (Jon Garaño), *Etxera* (Elena Sierra), *Maiteminez* (Maialen Velez) etab.

Esan barik doa, sarrera doan dela eta gerta liteke bertaritzen denak etorkizunean izal handia izan dezakeen zinegileren baten lehenengo urratsak ezagutzeko aukera edukitzea. m

Filmak > *El taxista ful*

Josek beste hainbat taxistak egiten duen bezalaxe, gauean Bartzelonako kaleetan zehar bizi ahal izateko taxia gidatzen du. Baina honek egiten duenak berezitasun nabarmena du: taxia ez da berarena baizik eta “hartuta edo lapurtuta”. Goiza esnatzerakoan Josek taxia itzuliko du eta irabazitako diruaren apurra erregaiaren truke utziko du. Istoriaren protagonistak ez du beste modurik bizitza aurrera eramane ahal izateko aurkitu. Baina jakina arazo legalek inguratuko dute. Jordi Solé, katalanar zinema zuzendariak, zuzendu du film interesgarri eta adierazgarri hau. Zuzendari honek pelikula honen bidez lanari eta funtsezko eskubideei buruzko hausnarketa garatzen du. Donostiako Nazioarteko Zinemaldian Altadis saria jaso zuen eta Nanteseko Zinemaldian Julio Verne saria eta Gazteen Epaimahaiak aipamen berezia eman zion, besteak beste.

Basakiren hirugarrena

Leioaztarren **Esperantzaren Zain** lana kalean da, **musikari ezagunen** kolaborazioagaz


Informazio gehiago: www.basaki.org eta harremanetarako: 618 072 026

Pasa berri diren sanjuanetan bete zituen Basaki taldeak 10 urte, alabaina taldekideen hainbat joan etorriren ondoren, laukote egonkorra 2004an eratu zen. Hala, Iker Herrero (gitarra eta ahotsa) eta Natxo Velez (baxua) leioaztarrek, Alfonso Rodriguez (bateria) algortarrak eta Errekaldeko J. M. Millaresek (gitarra) osatzen dute taldea. Hala ere, *“leioaztarizat dugu taldea, entseguak ere San Bartolomen egiten ditugu-eta”* azaldu du Velezek. 2000n argitaratu zuten lehenengo lana, *Basaki*; 2002an *Bide Estuak*; eta oraintsu plazaratu dute *Esperantzaren Zain*, Baga-Biga Musika Ideak-en bitartez. Rockaren eta metalaren erdibidetik dihardute eta Velezen

esanetan letrei dagokienez, *“badira gizarte gaiak edo gizarte protestaren ingurukoak, baina baita gai unibertsalagoak ere, sentimenduenak...”*. 10 abestietako bat berezia da, “AEK-ko beteranoak” kantaren bertsioa; *“Mexikon Kortaturari omenaldi disko bat egiten dabilta eta horretanako prestatu dugu bertsioa, letra errespetatu dugu baina musika gure estilokoa da”*, dio Velezek. Musikari esanguratsuek parte hartu dute Basakiren azken diskoan, berbarako, Aitor Gorosabelek (Sutagar), Nortonek (EH Sukarra, Norton klub...) eta Mikelek (Idi Bihotz, Flynn Freak); Velezek azaldu digun legez, *“aldez aurretik elkar ezagutzen genuen eta modu naturalean sortu dira kolaborazioak”*. m

diskoak

Living with war
Neil Young
Warner



Hiru egunetan grabatu du Neil Youngek bere azkeneko lana den *Living with war* eta ez da bakarrik egon; izan ere, tronpetatzaile batek eta ehun pertsona osatutako abesbatzak hartu dute parte. Guztira 10 abesti prestatu ditu Irakeko gerra salatuzko, 60ko hamarkadan arrakastatsua bilakatu zen folk musika konprometituaren ildotik baina ikutu metalagaz.

Detras de los espejos...
Doctor Deseo
Oihuka



Talde bilbotarraren 10. diskoa da eta bai estiloan zein hitzetan aurreko diskoetako bide berbera jarraitzen duela esan dezakegu. Betiko legez, gizakiaren barne mundua aztertzen duten kantuak sortu dituzte: amodioa, sexua, ametsak, fantasiak... Hala eta guztiz ere, antzinako, egungo zein urrutiko estiloak nahastu dituzte lan honetan: soul, funky, tex-mex, tangoa, doinu zingaroak...

Le chant des legendes...
Egon
Elkar



Iparraldeko Peio Serbielle kantariak, Aezkoa abesbatzak eta Xabier Marcos zein Philippe Pallaro ekoizleek hartu dute parte proiektu honetan. Marcos izan zen ideia honen bultzatzailea, euskal izpiritua batuko lukeen disko proposatu zion-eta Sonyri. Lan honekin euskal alegiak, izaki magikoak eta mitoak eman gura dituzte ezagutzera, 14 gizonen ahots indarsuen bitartez.

aurrerapena > Getxo Folk



Getxoko kultur etxeak irailaren 1etik 5era ospatuko den Nazioarteko Folk jaialdiaren egitaraua ia prest dauka, eta oraintsu plazaratu ditu

bertan jardungo duten musikari nagusien izenak. Kontzertu nagusiak Areetako Geltoki plazako karpapean izango dira (21:30), eta arratsalde kontzertuak (19:00) eta Munduko terraza (23:15) Erromoko Santa Eugenia kaleko karpapean. Hala, XXII. Getxo Folk jaialdiako egitarauko buruak hauek dira: Suediako Hedningarna laukotea (hilak 1), Maliko afropoparen maisu Salif Keita (hilak 2), Enzo Avitabile italiarra (hilak 3) eta *Hiri* bere azken diskoa aurkeztuko duen Kepa Junkera (hilak 4, 20:00). Ezin aipatu barik utzi, Bidezko Azoka, Munduko Merkatura eta gastronomia alorreko Munduko Terraza. Baina hori guztia irailean izango da.

diskoa >

Herriko kantuak II

Herriko kantuak II. Chants populaire du Pays Basque bildumako diskoa kalean dago. Bertan, Elkar diskotetik adierazi dutenez, Ipar Euskal Herrian inspiraturik kantuak bildu dituzte; ostera, musikariak Euskal Herri osokoak dira. Bildutako 14 kantetatik horra batzuk: *Jaun Baruak* (Benito Lertxundi), *Eperra* (Dominika eta Niko Etxart & Robert Larrandaburu), *Koblakari* (Pier Paul Berzaitz), *Uso zuria errazu* (Txomin Artola eta Amaia Zubiria) *Ingrat baten maitatzeak* (Oskorri), *Maitia nun zira* (Belardi) eta *Ahaide deliziuso huntan* (Olatz Zugasti).

etorri
eta
ikusii!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi
Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza
uztailak 17
Erromoko kultur etxea
uztailak 20

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Joseba Zulaika

antropologoaren **ETAren hautsa** saiakera argitaratu du Alberdania argitaletxeak

Gaur egun Renoko Center for Basque Studieseko zuzendaria den Joseba Zulaika antropologo eta ikerlariaren *ETAren hautsa* saiakera argitaratu berri du Alberdania. Joan den ekainaren 8an egin zuen aurkezpena egileak berak Donostiako Udal Liburutegian. ETAren azkeneko aldiaren eta bizitzako testuinguruaren inguruan gogoeta egiten du antropologoak bere liburu berrian.

ETAk su-etena iragarri aurretik hasi zen talde armatuaren amaierari buruzkoak idazten eta beste autore batzuek esandakoak izan ditu kontuan: Kierkegaard, Lacan, Oteiza, Lauaxeta, Castells, Derrida, Aresti, etab.

«Besarkada historikorako ordua da»

Euskal gizartean ETAk izan duen eraginaz ere berba egiten du idazleak eta politikaren premia aldarikatu, bere ustez, errealitateak aurpegi ugari dituelako. Faxismo garaian zegoen eraso eta beldurra gaur egun ez dagoela ere badio Zulaikak eta abertzaletasunak bere burua sakrifikatu behar duela uste du, bere aburuz garai berri baten aurrean gaude-eta. «Badugu



Argazkian, Joseba Zulaika

parlamentua, baditugu alderdi politikoak eta elkarteak, eta badakigu kontatzen esku altxatuak zeren alde dauden. Zein da ba gure arzoa? Besarkada historikorako ordua da. Gal-dutakoen memoria erredimitzeko modu bakarra: euskal berpizkunde berri bat», azaltzen du idazleak.

Hala ere, ez du ETAk utzitako ondare guztia modu ezkorrean ikusten eta hasierako ETA «post-aranista» erabat iraultzailezat jotzen du. Garai hartan taldea intelektualki irekia zela uste du Zulaikak. Halaber, bere garapenean garrantzitsuak izan ziren pertsonak ekartzen ditu gogora, tartean, orain dela gutxi zendutako Jokin Gorostidi eta 1968n hil zuten Txabi Etxebarrieta. m

liburuak



Baietz okerrek bidea...
E. Agirre / A. Urmeneta
Alberdania

Sukaldaritzaren ausia da liburu honen gai nagusia. Edorta Agirrek faseetan sailkatu du elikadura prozesua eta ehun bat iragarpen egin ditu gure etorkizuneko elikadura-ohiturei buruz. Hori egiteko, Asisko Urmenetaren marrazki dibertigarrien laguntza izan du.



Dioramak
Patxi Iturregi
Elkar

66 ipuin laburrez osatutako bilduma da Patxi Iturregiaren Dioramak: anekdotakaz hasi eta gutxinaka-gutxinaka argumentu sendoago eta trinkoagoetara igarotzen da idazlea eta era guztietako kontakizunak aurki ditzakegu (tragikoak, komikoak, errealistak, fantastikoak, psikologikoak, absurdoak...).

[kirola]

Imanol Loizaga > maratoilaria

«Kirola egiteari ez diogu inoiz ere utziko, beste eritmo eta moduetan, baina jarraitu egingo dugu»



Imanol Loizaga korrikolariak astean 6 egunetan egiten du entrenamendua

Maiatz amaieran Bilboko lasterketan 2. postuan sartu zen Imanol Loizaga 36 urteko algortar korrikolaria, eta era berean Espainiako maratoiko txapelkun bihurtu zen beterrano mailan; «*pasa den urtera arte beterranoen maila gizonetzkoetan 40 urtetik gora hasten zen, baina aurten 35 urtera bajatu dute, beraz...*», azaldu du. 42 km eta 195 m-ko maratoia 2 ordu 31 min 46 sg-ko denboran egin zuen Loizagak.

Futbolearen jardun ostean, aretoko futbolearen ibili eta gero orain dela 5 urte edo ekin zion atletismoari. «*Lehenengo urtean nire kontura ibili nintzen, eta geroztik Getxo Atletismo taldeagaz nabil Dimas Ramosen gidaritzapean; nire kabuz hasi nintzen, jende askok egiten duen legez, astakilo moduan hasi nintzen: 10-15 km-ko proba batean parte hartzen duzu eta ti-ta maratoi bat egitera salto egin; baina, gero honen gainean asko dakien jendearen «esku» ipini nuen neure burua, eta hobeto*», adierazi du algortarrak.

Barru-barrutik harrapatzen zaituen kirola dela dio, «*mendean hartzen zaitu, baina aldi berean gogobetetzen zaitu, poztasuna eskaintzen dizu zeure gaitasuna hobetzen ahalegintzen zarelako eta batzuetan lortu duzualako, azken finean,*

lehia zeure buruaren kontrakoa delako, gero datoz markak eta beste guztia». Horren adibide dira orain 3 urte 10.000ko Euskadiko pista txapelketan lortutako 5. postua edota Bizkaiko txapelketako 3. postua. Hala ere, lortutakoa erdiesteko astean 6 egunetan egiten du entrenamendua, «*barruketan atsedean hartzen dut; beharrezko buztartuz, astelehenetik eguenera bazkaltzeko 2 orduak erabiltzen ditut entrenatzeko, ondoren asteakabuetan goizean goiz joaten naiz korrika egitera*».

«Harrapatzen eta gogobetetzen zaituen kirola da; azken finean, lehenengo lehia zeure buruan kontrakoa da»

Bestalde, azkenengo lasterketek muskuluak nahiko zigortu dizkiote eta zelanbaiteko «atsedonaldia» hartuko du orain, «*abuztu-irailan datoren denboraldia prestatzen hasiko naiz, neguan krosak korritzen-eta, gero maratoiko marka jaisten ahaleginduko naiz*». Amaitzeko, azken adierazpen legez horra Loizagak etorkizunari botatuko dema: «*Kirola egiteari ez diogu inoiz ere utziko, beste eritmo eta moduetan, baina jarraitu egingo dugu, hain barruan daroga*». m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETOKO ELEKTROTRESNEN KONPON-

Lacofris, s.l. SERVICIO



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUN
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZU
& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA


BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430
HIRURAK

Sarrikobaso 15

Jose Maria Lopez Arostegi > medikua

“Orain urte batzuk erabaki nuen Panaman beharrezkoagoa nintzela hemen baino”



“Jon Sobrinok, esaten zidan: hemen errealitatea bizi dugu, errealitatea ikusi behar da”

1994tik, Sopelan dauka etxea Jose Maria Lopez Arostegi bilbotar medikuak. Gaur egun, ordea, Panaman egiten du denbora gehien, bertako eskualde bateko osasun-sistema garatzen laguntzen dihardu eta. Beraz, zorte handiz topa dugu Euskal Herrian: urtean hilabete bide baina ez ditu emoten bertan. 71 urte dituela, sasoi beteko ageri da Lopez Arostegi nekaezina, esku artean dituen zereginen barriketan.

—Sopelan etxea baina Panaman bizilekua...

—Mundu desberdinak dira. Orain urte batzuk bisita egin nuen Ertamerikara, hangoak zelan bizi ziren jakitera. 92an izan zela uste dut, neure eginbehar politikoak amaitu eta gero. Hala ere, argitu dezadan beti izan naitzela medikua, hori izan da nire ogibidea.

—Lan politikoa diozu. Zelakoa?

—Euskadin beharrezkoa zen, Franco hil ostean, zeozer egitea. Dena zegoen egiteke, eta guk geure buruari esaten genion edozein

euskal herritar abertzalaren betebeharra zela lan hartan parte hartzea. Ni, batez ere, Getxoko Udaletxean ibili nintzen, 12 urtez zinegotzi, eta lehenago Eusko Kontseilu Nagusian aholkulari. Denetik egin behar zen, egia esan. Azkenik, 1991n burututaz emon nuen neure lana.

—Era Ertamerikara joan...

—Bai, hiru hilabetez joan nintzen, Nikaraguara, Salvadorrera... Euskal jesuita batek, Jon Sobrinok, esaten zidan: hemen errealitatea bizi dugu, errealitatea ikusi behar da,

eta horren arabera jokatu. Nik mendetako zapalkuntza jaso duten bertoko etnien egoera ikusi nuen, eta laguntzea erabaki nuen. 93tik 98ra, urtean hiru hilabetez joan nintzen Panamara, Ngöbe etniaren lurraldean mediku jardutera.

—Aldaketa handia, hemendik hara.....

—Talka ez da hain bortitza ia 60 urte edukita, nik orduan neuzkan bezala. Bizitzaz gehiago dakizu, eta badakizu zer topatuko duzun: pobrezia gorrian bizi den giza-taldea Han, biharamuneko jatekoa lortzea oso zaila da. Ez dago lekuri zoramenerako, psikia-

«Han, biharamuneko jatekoa lortzea oso zaila da; ez dago lekuri zoramenerako, psikiatriarako.»

triarako. Norberaren indar guztia hurrengo eguneko jana lortzera bideratu behar denean, ez dago eskizofreniarik.

—Eta hemen bai?

—Nik, 44 urtez milaka gaixo ikusi eta gero -kontsultategi pribatuan beti-, esango nuke hemengo gaixoen %30en gaitzak ez daukala jatorri organikoa, psikologikoa baizik. Sintoma berdinak, baina kalte organikorik ez. Panaman berriz, gaixorik zagoz edo ez zagoz, ez dago besterik.

—Azkenik, zerk bultzatu han gelditzera?

—Familia ondo hazita neukan harrezkero, eta uste nuen han beharrezkoago nintzela. Lehen urteetan mediku nenbilen, lan eroso azken batean. Pozik bueltatzen nintzen Euskal Herrira, baina egia esanda ez nuen ezer egiten, ez nien baliozko ezer uzten. Azkenik, eta 99an Ngöbeak gobernu autonomoa garatzen hasi zirenez, hemengo garapen autonomikoan lortutako eskarmen-tua erabiltzea erabaki nuen, euren osasun-sistema garatzen laguntzeko. Horretan nabil zazpi urtez. m

Esakere > “Yantzari ezin geldi egon”



Batzuk behar egiten dauden bitartean beste batzuk yai. Halan bizi gara gure gizartetxun. Baia kontu da kasik dana ixen leitela lana gaur egun; bai yantze eta kantu bere. Konpara leite kantari lana iturgirie edo zapateru ixeteaz, kasu baterako? Ezin esan. Batzun gaitasune eta poztasune zapatak maitasunez eta abildadeaz konpontze da... eta beste batzune zapatak yantzan-yantzan apurtute. Abildade bat dekonak horitxe dau poztasune: ezin dau barrun gorde, ezin dau geldi egon.

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran "Atsotitzak" bilduman topako dozue.

Gureberbakere80

ESAKERA ZAHAR BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

Yantza kontuk aitetuten dauz goiko esakeratxuk, eta bide horretatik egingo dogu aurrera gaurko berbakere: Gotzon Garatek beran atsotitz bilduman eta Justo Mokoroak beran esakeran bilduman yantza aitetuten dauden esate batzuk dakarrez, eta ikusiko egingo doguz horretariko batzuk hemen.

Goiko esakeratxuk lez, hemen datozen honek bere zeozer gehiago esan gure daude yantza edo yantzari berbakaz:

- *Zelango soñu, alango dantza.* (Garate)
- *Gaiztoaren alabantza, ez musika ta ez dantza.* (Garate)
- *Urrunekoak mezara, elizondokoak dantzara.* (Garate)
- *Zoroak berak soinu ta berak dantza.* (Garate)
- *Dantzari onarentzat soñu txarrik eztago.* (Mokoroa)
- *Danboliñaren etxean guztiak dantzari.* (Mokoroa)

Esakeratxu honek ikusi ezkeron argi dago yantze gauza positibo lez, osasun señale lez, hartu ixen dala gure mundu euskaldunen, sikanan modu "metaforikon" erabilten danen. Baia yantza berbe modu literalan erabilten danen, hau da, beste barik yantze esateko, batzuten aitetuten da gauza on lez eta beste batzuten ez hain on lez, batez bere Mokoroak baturiko esakeratan.

Zegaitik diferentzi hau? Esan beharrik ez dago, yantze gauze on lez hartzeko "garbi" ixen behar euen sasoi bateko jententzako:

- *Zar eta gazte, sekulako ugerra kendu eutsien azur-txokuei, arratsalde guztian eusko-dantza polit garbia erabillirik.*
- *Gazteen dantza garbia zoragarria izan zan: mun eginda hartzekoa!*

Eta zein ez da dantza garbia? Ba honek ezaugarrik dekozena:

- *Zenbat gabaren urrago ainbat zatarrago dantza bakotxa.*
- *Enparantzan bertan soñu-jole bi, inpernuko auspoari putz emoten; ta gazteak pozik dantza nastuan.*

Hau da, illuntzen eta alkar oratute egiten dan yantze ez da "mun eginda hartzekoa".

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

A Arasa

Sukalde eta Komunitarako
Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen
zaharberritzeak eta
dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

**Errotalde
ileapaindegia**

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBIO

**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Porru krema

Egiteko oso erraza eta hotz jan daitekeen platera proposatzen dizuet uda hasiera sargoritsu honetarako: porru krema. Lapikoan julianan zatitutako porruaren alde zuria eta patata zati kraskatuak gurinan salteatu. Ondoren salda (ez badaukagu ura erabili) gehitu eta su ahulean hoge minutuz eduki. Ondoren, esnegaina gehitu eta ondo nahastu. Hau guztia txinotik (edo irabiagailutik) pasatu eta kitto. Platera atontzeko, porruaren alde berdea tiritan zatitu eta friji daitezke, eta gero hauek plateraren gainean ipini. On egin! ^m

osagaiak (hiru laguntzat)


- dozena bat porru • biru patata handi • litro eta erdi salda
- baso bete esnegain • 60 gurin



itsaso arana / jolastokikoa

Pedro Ximenez mahatsa

Kalitate handiko mahats zuria da *Pedro Ximenez*, oso aromatikoa. Batez ere Kordoba eta Malagako probintzietan hazten da. Mahats sikuen gustua dauka, mahats sikuen aroma eta zaporeak. Esan bezala oso aromatikoa da eta horregatik bai ardao *generosoak* bai ardao gozoak egiteko oso egokia da *Pedro Ximenez*. Mahats honekin egiten diren ardao hauek bazkal ostean primeran sartzen dira. Egizue proba. Azkenik aipatu Montilla-Moriles ardao ospetsuak mahats honekin egiten direla. ^m



Kandilejas taberna Gazteentzako txokoa Erromon



Mikel Correa eta Zigor Perez jabeak

Betidanik gura izan dute Mikel Correak eta Zigor Perez gazteek taberna bat elkarregaz jartzea; beraz, Erromon dagoen Kandilejas taberna hartu eta euren negozioa martxan jartzera ausartu ziren lagun biak. 2004an izan zen hori eta egindako beharrak emaitzak ematen dituela nabari da; izan ere, asko dira lokalera hurbiltzen direnak. *“Denetarik etortzen da gurena, gazteak eta hain gazteak ez direnak”,* azaldu digu Mikel Correak. Aste barruan giroa lasaiagoa da eta asteburuan, berriz, bizi-bizia. Hala eta guztiz ere, inguruko gazteak dira han nagusi, jabeak ere gazteak dira oso eta ezaugarri hori tabernako dekorazioan (argazkiak, koloreak, altzariak...) zein jartzen duten musikan islatzen da. Aurki dezakegun antzinako zantzu bakarria lokalaren izena da,

Kandilejas. *“Guk taberna hartu genuenean horrela deitzen zen. Ez dakit zergatik jarri zioten izen hori”,* dio Mikeleek.

Baina ez da giroa Kandilejasen eskaintzen duten gauza on bakarra. Pintxoak ere egiten dituzte, eta ez edonolakoak: besteak beste, sandwichak, bokadilotxoak, begetalak eta izurgarizko itxura duen patata tortila.

Horrez gain, txoko bat jarri dute tabernako barnealdean, kuxkuxeroen begiradatik kanpo; gauza askoren artean, zerbait hartzeko, Athleticeko partidak ikusteko, pelikulak jartzeko edo lagun taldeek egoteko leku bat izan dezaten. Bertan, jende nahikoa biltzen dela diote jabeek. ^m

KANDILEJAS Urkizu, 2 - Erromo

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado r



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

**Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93**

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?**

*herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE
Usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

*Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!*

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

**aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA
t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Itsasoa maite duzu, zure ingurune naturala dela esan dezakegu. Kresalaren usaina, olatuen zorabioa, batelari jarri diozun motor txikiak egiten duen zarata “txof, txof, txof!”, Kantauriko uren gardentasuna... Poetikoa zara gero!

AITZURRA
t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Izugarri dotorea den ospakizun batera gonbidatu zaituzte. Ez dakizu zelan jantzi, zelako jarrera izan... Zure burua beste ekosistema batean ikusten duzu. Trankil, zaren bezalako izan, ez dizute gehiago eskatuko-eta.

GARIA
t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Edozein motatako negozioa abian jartzeko garai ezin hobea da oraingoa. Ez dakizu zergatik, baina zorte ikaragarria daukazu azkenaldi honetan. Ainguruxu goardakoren bat ibiliko da gertu, ez utzi ihes egiten!

META
t



(Irailak 17 urriak 16)
Askotan pikutara bidaltzeko gogoak etortzen zaizkizu, baina ezinezkoa da zuretzat hori egitea, larregi maite duzu-eta. Hainbeste urteren buruan, gauza ugari igaro dituzue batera eta hori kontuan hartzekoa da, ala ez?

OTSOA
t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Txakolina edo sagardoa, hemengo jaki goxoakaz lagunduta badoaz hobe. Moko finekoa zu! Edonolako gauzarik ez duzu gura eta, euskalduntasunaren urrezko lege sakratuek agintzen dutenez, tripa ondo betetzeko ezinbestekoa zaizu.

HOSTOA
t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Irratian, telebistan, egunkarian eta komunikabide guztietan berri berberak. Monotonia deitzen zaio horri eta norberak eraikitzen du. Bakoitzak osatu behar du bere bizitzako abentura, amaiera ezezaguneko eta genero anitzeko trama alegia.

LASTOA
t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zure koadrilan ezkontzen hasi dira eta badirudi denek aldi berean egin behar dutela. Itota zaude, dirurik ez eta ez duzu aurreko egunean erakustokian ikusi zenuen jantzi hori aurkitzen. Garaiak eta garaiak daude...

HAZIA
t



(Urriak 17 azaroak 15)
Lurrikara baten modukoa zara. Goizean ohetik altxatzen zarenetik zure etxeko gela guztiak, eta bertan daudenak, astintzen dituzu. Poztasuna eta energia hedatzen duzu igarotzen zaren lekutik, ederra zara barrutik!

ADARRA
t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Besteek diotenak zuri bost! Herri txiki baten bizitzeak hori dauka. “Kulebroi” erraldoi batean bizitzea bezalako da eta protagonista nagusia legez sentitzen zara. Ez jaramonik egin, bestela ezingo duzu aurrera jarraitu.

EGUZKIA
t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Atzerriko eta beste kulturetako jendea ezagutzeko erromantizismo puntu bat du zuretzat, Gulliverren bidaiek edo Robinsonen abenturek bezala. Hemen baino harago ibiltzea gustatzen zaizu, besteena ikasiz eta zurea erakutsiz.

IRATZEA
t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Kirol gehiago egin beharko zenuke, ez da-eta normala hain gaztea izanik zeharo erdoilduta egotea. Jaten duzunagaz kontuz eta aska itzazu giharretako marapiloak. Jagon zaitetz eta nabaritu duzu nabarmen.

NEGUA
t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Hegazkina hartu behar du urrunera joateko eta oraindik ez diozu ezer esan. Betiko galdu gura duzu? Bizitza osoan ibili da ezkutuko mezuak zuri bidaltzen eta ez duzu bat ere ez harrapatu. Orain, etsita, badoa...

mungia
oKINdegia



*Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Galdeketa egina. 2. Haurridetasuna. 3. Oti. 4. Airatu aditzaren oina. Bururatu. Potasioaren ikurra. 5. Nauka. Ipar., Egoki, eratsu. 6. Fosforoaren ikurra. Epe. Ahuntzaren ar. 7. Pluralean, hodeietatik maluta zurietan erortzen den ur izoztua. R bikoitza. 8. Rutenioaren ikurra. Bizkaieraz, zama. Baieztatzeko. 9. Tabakotik ateratzen den alkaloide pozoitsua. Kontsonantea. 10. Bete. Nekatuta.

Goitik behera

1. Perretxiko mota. 2. Senide arra. Gizon izena. 3. Larrua kendu. Suari dario. 4. Daude. Egitako, zeregin. 5. Euskal erakunde armatua. Egokitu. 6. Oilasko zikiratu. Azaleko. 7. Nafarroan, soinuak, zaratak, azantzak. Sodioaren ikurra. 8. Hodiak. Hiru zati hiru. 9. Lipar, momentu. Mota, itxura, tankera. Uranioaren ikurra. 10. Bokal errepikatua. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak antolatzen duen ekitaldia.

Soluzioak

V	U	T	A	N	N	E	S	V	
K	V	N	I	T	O	K	I	N	
I	B	A	R	O	L	R	U	R	
R	R	K	A	R	R	U	E	L	
R	E	K	A	I	A	T	A	P	
O	K	A	S	A	K	I	G	I	
K		T	U	O	T	A	V	A	
		E	O	P	A	R	R	A	
V	N	A	S	U	A	I	T	A	
A	T	U	A	K	A	L	D	E	

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Teleberria utzi zuen politikan aritzeko
- Nafarroako herri bat da bere izena
- Euskalduna goitik-behera

> Aurrekoaren erantzuna: Xabi Alonso

> Irabazlea: **Tasio Munarriz (Tasio)** *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



RAMON MAZOK UTZITAKO ARGAZKIA

Club Deportivo Ondarreta, 1958

Ezin izan dugu argazki honen gainean nahi beste informazio jaso, baina dokumentuak merezi zuelakoan *flash-back* honetara ekarri nahi izan dugu. Areetako kirolari gazteak dituzue, atletak hain zuzen ere. Eskolen arteko Bizkaiko taldeen txapelduna izan zen 1958an. Lehiaketa hura Bokadiloaren olinpiada izenarekin ezagutzen zen, izan ere, parte hartzaileei otarteko bana eta freskagarria ematen zizkieten, Coca-cola bat zehazki, marka hori zen-eta norgehiagokaren babesleeta bat. m

Argazkian azaltzen diren batzuk: Jose Luis Barbolla, Ramon Mazo, Luis Bergaretxe, Angel Cormenzana, Fabian Meabe, Eusebio de la Quintana, Jose Sanchez, Ignacio Sola, Peña, Yuli, Manzano...



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

ESTEPAN ALDAMIZ-ETXEBARRIA > kazetaria

“Edadearekin dena barkatzen da”

Testua: **Oiane Moran**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Berba bitan ezinezkoa! Enrrebesatua eta alaia, agian?

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Protagonistaren papera egiteak beldurra ematen dit. *The matrix*, zerbait esateagatik...

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Beharbada Cristobal Colon. Euskaldunak Ameriketara egon zirenean lehenago, baina ez zuten, berak bezala, lortutakoa ezagutzera eman.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Asko. Eduki behar dira gainera!

Aitor dezakezun bizio bat.

Bizio hitza ez zait gustatzen, konnotazio morala ematen dio galderari.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Greziara. Dena dauka: itsasoa, eguzkia, jendea, harriak, argia...

Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?

Edadearekin dena barkatzen da, baina ez nuke zitalkeria barkatuko.

Zein da zure ametsetako bat?

Bidaiatzeko denbora asko edukitzea.

Lo egiteko ezer janzten al duzu?

Ez, erantzi egiten dut.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Aitortu beharra dago bizitzeko gauza asko behar ditugula. Nik, nahitaez, “lentillak” behar ditut.

Zein da ikusi duzun azken filma?

Volver. Badirudi topiko bat dela, baina Almodovar oso ona da.

Eta irakurri duzun azken liburua?

El Código da Vinci-ren zatitxo bat irakurri nuen eta berehala galdu nuen interesa. ^m



Leioako ospitala, 2005

Asier Mentxaka argazkiak / photographs

Satistegi kafea / Algorta
uztaila / july 2006

LABURREAN— Estepan Aldamiz-Etxebarria Caracasen jaio zen eta, odolean ez bada ere, Karibeko zerbait barruan geratu zaiola aitortu digu, beraz, “euskal-karibeñotzat” jotzen du bere burua. Madrilgo Konplutentsean Kazetaritza ikasi zuen hiru urtez eta Zeruko Argian, Deian zein Euskal Telebistan egin du behar. Gaur egun saio bi aurkezten ditu telebistan: goizeko ordu txikietan ikus dezakegun *Bakarrik edo...* eta *Firin Faran* eztabaida programa. Bizitasun handiko pertsona, makina bat proiektutan saltseatzea gustuko duen horietakoa da Estepan.